


hh
hik hasi

Askotariko adimenak
Antzeztuz ikasi
Irakaslearen komunikatzeko estiloa
Bullyinga eta bizikidetzatza
Laguntza inklusiboa
Euskal kantagintza
Mindfulnessa hezkuntzan



UDA KO TOPAKETAK

LUK eta AMETO

Euskal Herriaren historia



IPUIN BERRIAK



Zazpi Kaleetako eskola

BILBO: langile mugimendua eta abertzaletasunaren sorgune.



Ikastola armairu barruan

DONOSTIA: lehenengo ikastolen sorrera.



Martxa eta borroka!

80ko HAMARKADA: intsumisioa, gaztetxeak, soldaduska, musika...



**EZAGUTZA
LIBURUA**



**MAHAI
JOKOA**

AURKIBIDEA

GAIA 1 / 8

ASKOTARIKO ADIMENAK

Ezaguna da mundu osoan askotariko adimenen teoria eta hezkuntza-paradigma aldatzeko premia ekarri du. Diskurtsoan hain sonatu egin den teoriak zer-nolako isla du praktikan? Nola egin tokia adimen mota desberdinei eskoletako eguneroko jardunean? Edurne Etxeberria irakasleak azaldu dio *hik hasi*-ri.

GAIA 2 / 12

ANTZEZTUZ IKASI

Antzerkia irakaskuntzan ere erabilgarria izan daiteke, edukiak ez ezik, askotariko gaitasunak lantzeko, nahiz ikasleen artean elkarbizitza sustatzeko. Euskararen erabilera, pertsonen garapena balio aurrerakoietan oinarrituta, eta ikasleen arlo artistikoa jorratzeko ere baliogarria da.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-06-10).

Kopurua: 5.000 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Bakoitzak bere bidea

6 ALBISTEAK

16 ELKARRIZKETA 1

BERONIKA AZPILLAGA

“Gela barruan irakasleak eta bere transmititzeko indarrak baldintzatzen dute beste guztia”

22 ELKARRIZKETA 2

AITOR ALBIZU

“Irakasleonek egitekoa da gela abegikorra sortzea, gela segurua, goxoa eta kohesionatua, alegia”

26 EKARPENAK 1

Otsoaren ahoan barrena

30 EKARPENAK 2

Heziberri 2020 - Zientziarako konpetentzia

34 EKARPENAK 3

Artea Lehen Hezkuntzan

36 EKARPENAK 4

Laguntza inklusiboa

40 EKARPENAK 5

Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez


42 GALDEIDAZU

Mindfulness hezkuntzan

46 ATZEKO ATETIK

Naiara Gorroño

Hazi Hezi



Bakoitzak bere bidea

editoriala

UMEA BANAKO GISA HARTZEAZ ETA BAKOITZAREN GAITASUNAK POTENTZIATZEAZ MINTZO DIRA ADITUAK. HORRETARAKO ADIMEN MOTA GUZTIEI LEKUA EGIN BEHAR ZAIE IKASGELETAN.



Arlo batean ez bada bestean, denok gara inteligenteak. Hala dio askotariko adimenen teoriak. Tradizionalki bi adimen mota izan dira nagusi: logiko-matematikoa eta linguistikoa, eta hein batean, oraindik ere hala izaten jarraitzen dute. Baina, apurka, beste adimen mota batzuk ere garrantzia hartzen ari dira. Adimen emozionalaz, artistikoaz edota naturalistaz gero eta gehiago hitz egiten da gure eskoletan.

Haur bakoitza bat eta bakarra da. Umea banako gisa hartzeaz eta bakoitzaren ahalmen eta dohainak potentziateaz mintzo dira gaur egungo adituak. Horretarako, ordea, adimen mota guztiei lekua egin behar zaie ikasgeletan eta haurrei era guztietako gaitasunak lantzeko baliabideak eskaini; alegia, eskolak ikasleari abagunea eman behar dio bizitzan bere bidea egin dezan. “Kirolari ona izan zaitezke, musikari ona, antzezle ona, arkitekto ona... Garrantzitsuena da egindako horrekin norbera gustura sentitzea, eta gure egitekoa da haurrari bere prozesua bizi dezan aukerak ematea”, dio Edurne Etxeberria irakasleak askotariko adimenei buruzko artikuluan.

Baina haur bakoitza bat eta bakarra den moduan, irakasle bakoitza ere bat eta bakarra da. Eta bakoitzak izango ditu bere premiak eta bakoitzari eman beharko zaio profesionalki bere bidea egiteko aukera. Izan ere, Beronika Azpillaga EHuko Hezkuntza Zientzietako irakasleak zenbaki honetan dioen moduan, irakasleen esku dago, neurri handi batean,

gela barruko giroa atsegina izatea eta jarduna oparoa. Eta irakaslearen esku egongo da ikasle bakoitzak bere bidea egin dezan baliabideak eskaintzea ere. “Ondo lan egiteko garrantzitsua da irakasleak autoestimua profesional altua izatea, gainontzean ez baitu ziurtasunik izango eta beldurrez joango baita gelara. Horretarako sozialki estimatzen den lanpostua izan behar luke irakaslearenak, prestigioduna. Bestetik, berriz, kontuan izanik ikasleak ikasiko badu sentimendu positiboak behar dituela, irakasleak sentimendu positibo horiek sortzeko lan egin behar du”.

Hain zuzen ere, horretantxe saiatzen da Hik Hasi Udako Topaketetan eskaintzen dituen ikastaroekin: ahalik eta aukera zabalena ematen irakasleei euren buruak presta ditzaten, ziur senti daitezen, autoestimua izan dezaten, motibatuta egon daitezen... Adin, arlo, zaletasun, izaera, premia... ezberdinetako irakasleak buruan izanik antolatu ditu topaketok. Ikastaro batzuk teorikoagoak dira, praktikoagoak besteak; norbere buruaren lanketa pertsonala egitea proposatzen dute zenbaitek, eta zuzenean ikasleekin lan egiteko jarraibide zehatzak ematen dituzte beste hainbatek.

Baina, azken batean, irakasleak elkartzeko eta euren esperientziak partatzeko topaleku izatea dute xede Hik Hasiren ikastaroek; hausnartarako espazio; eta asmo, ideia nahiz proiektu berriak aurkezteko plaza. Ea, bada, beste urte batez ere, irakasleontzako plazer eta asebetegarri izaten diren.

“Ikaslearen autoestimua lantzearen helburua ez da emaitzetara murriztu behar. Baita ere gehiengoaren presioari, norma bidegabei eta diskriminazioei aurre egiten ikasteko balio behar du”.

Alain Touraine

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

FILOSOFIAK DERRIGORREZKO IKASGAIA IZATEN JARRAI DEZALA ESKATU DUTE

Filosofiaren Historia derrigorrezko ikasgaia da egun Batxilergoko bigarren mailako ikasleentzat, baina hautazkoa izango da datorren ikas-turtetik aurrera, LOMCE eta Heziberri hezkuntza-erreformen ondorioz. Bada, hainbat irakasle ez daude ados aldaketa horrekin, eta aurrerantzean ere derrigorrezkoa izan dadila eskatu du, besteak beste, filosofiako 60 bat irakasle biltzen dituen Agora elkarteak. "Autonomian, gaitasun kritikoan eta autoezagutzan aurrera jo nahi duen gizarte batek ezin du inola ere filosofia galdu".

Hain zuzen, aurtengo selektibitateko filosofia azterketaren ordu berean egin zuten salaketa Agora elkarteko irakasleek, EHUren Arabako campusean. Gogor kritikatu zuten Eusko Jaurlaritzaren jarrera, haien ustez, ez baitu bere ahalmen guztia erabili egoera aldatzeko, beste autonomia erkidegoek egin duten bezala.

178 IKASTETXEK EGIN DIOTE PLANTO LOMCE-RI

Hezkuntza Plataformen Topaguneak LOMCEri planto egin dioten 178 ikastetxe zenbatu ditu. Ikasleak ebaluatzeko LOMCEk ezarritako sistema ez zaio egokia iruditzen Topaguneari eta datorren ikasturterako ebaluazioaren inguruko eztabaida ireki nahi du.

Iruñeko bi haur-eskola euskarazko adarrera pasatzea eteteko agindua bertan behera utzi du Auzitegi Nagusiak



Beste bi haur-eskolatan euskarazko eskaintza izango dute Iruñean. Irailean egitekoa zuten aldaketa, baina behin-behinean eten egin zuten auzitegi batek, erdarazko hezkuntza segitu nahi zuten guraso batzuen salaketa onartuta. Auzia argitu arte aldaketa egitea galarazi zuten. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak hankaz gora jarri du agindua: bertan behera utzi ditu salaketa argitu aurreko neurriak, esanez aldaketa ez egiteak dakartzan kalteak handiagoak direla.

Euskarazko eskariari erantzuteko bidea jarri du Iruñeko Udalak datorren ikasturteari begira, euskarazko eskaintza beste bi eskolatarazabalduta: Arrosadia auzoko Printzearen Harresia ikastetxera eta Donibane auzokora. Ez da eskaria asetzeko adinako neurria, hala ere: haur-eskoletako lekuen % 27 dira euskarazkoak, eta eskaria % 38 da.

Eskola jangeletako langileek salatu dute eurak ari direla isunak ordaintzen

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetako jangeletan zerbitzua ematen duten *catering* enpresetako beharginek protesta egin dute berriro, LAB sindikatuak deituta. Joan den otsailean Lehiaren Euskal Agentziak enpresa horiei ipinitako isunak eurak ari direla ordaintzen salatu dute, eta ohartarazi dute lan baldintzetan eta zerbitzuetan murrizketak egon direla. LABen arabera, kasu batzuetan murrizketak % 40koak izan dira. Gainera, enpresek ez dituzte errespetatu horrelako erabakiak langileei komunikatzeko legez finkatuta dauden egunak, eta ahoz jakinarazi dizkiete.

HIZPIDE IZANGO DA

Ikasleak ez dira konturatzen nola eragiten dioten genero rolek ikasketen hautuari

Batxilergoko ikasleek goi mailako ikasketak aukeratu behar izaten dituzte. Emakundek eginiko ikerketa batek erakusten duenez, hautua, hein handi batean, gustuen arabera egiten dutela uste dute ikasleek, eta ez zaie iruditzen genero-erolek zerikusirik dutenik haien aukeraketan. Baina, genero-marka agerian geratzen da unibertsitaterako matrikulazioetan, generoaren arabera ikasketa bat edo beste aukeratzeko baitute ikasleek, nagusiki. Emakumeek Osasun Zientziak, Arte eta Giza Zientziak, eta Zuzenbide Zientziak aukeratzeko dituzte, batez ere. Aldiz, gizonek gehiago aukeratzeko dituzte Ingeniaritza eta Arkitektura.

Batxilergoko 2. mailako 1.303 ikasleri egindako galderetan oinarrituta dago ikerketa. Emaitzetan ikusi dute ikasketetan aurrera egin ahala generoak eragin zuzenagoa duela erabakietan. Hau da, Batxilergoko modalitate bat aukeratzekoan, neska edo mutil izateak ez du axola ikasleen % 70entzat. Goi mailako ikasketen hautuaz hitz egitean, ordea, % 58,4ra jaisten da ehunekoa.

Datu horiek ikusita, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak mezu bat bidali die ikasle, guraso eta irakasleei. Lan arloa desberdintasunen iturburu nagusia dela gogorarazi du. "Ikasketa hautua egiteko orduan genero baldintzen eragina zuzena da. Horrek garapen profesionala eta lan merkatuko kokapena mugatzen dizkie ikasleei, baita desberdintasunak handitu ere".

Eragin hori apaltzeko, ikasketak hautatzerakoan lan-arloaren garrantzia kontuan hartzeko eskatu du. Horretarako, bi lan ildo xehatu ditu. Batetik, enpleguak izan behar luke muina nesken heziketan; eskubide eta betekizun individual gisa aurkeztu behar zaiela gaineratzen du. Bestetik, mutilen kasuan, etxeko lanetan eta familia arduetan erantzukidetasunez jokatzeari buruzkoak azpimarratu behar liratekeela nabarmentzen du.



REGGIO EMILIAKO LEHEN HEZKUNTZA EZAGUTZEKO JARDUNALDIA EGINGO DA BILBON

Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza ezagutzeko udaberriari Donostian egin zen jardunaldian jende asko kanpoan gertu zenez, datorren udazkenean Bilbon beste saio bat egitea erabaki du Hik Hasik, Donostiako saioaren balorazioa egin ostean, eskaintza osatuz.

Urriaren 15an izango da saioa Bizkaia aretoan, 9:00etatik 18:00etara. Italiako Reggio Emiliako Udako Haur Eskolek 50 urteko ibilbidea egin eta gero, duela 7 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. Beraz, Haur Hezkuntzako proiektua Lehen Hezkuntzara nola eraman den ezagutu ahal da jardunaldian. HHK zein LHK dituzten ezaugarrien berri emango dute hango profesionalak, eta eskubide bereziak dituzten haurrekin nola jokatzeko duten azalduko dute.

ARRETA GOIZTIARRA HIZPIDE HIK HASI-REN UDAZKENEKO JARDUNALDIETAN

Azaroaren 4an Bilbon eta 5ean Donostian egingo dira Hik Hasik udazkenean Haur Hezkuntzako profesionalen zuzenduta antolatzen dituen jardunaldi-pedagogikoak. Aurtengoan arreta goiztiarra izango da gai nagusia eta hizlari lanetan Anna Luna, Xabier Tapia eta Alvaro Beñaran ariko dira.



1983an aurkeztu zuen Howard Gardner psikologoak eta AEBko Harvard Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak askotariko adimenen teoria. Iraultza ekarri zuen ikaskuntza-prozesuan nahiz jakintza ulertzeko moduan. Izan ere, bi adimen mota ziren nagusi ordura arte: logiko-matematikoa eta linguistikoa. Horietan onak zirenak inteligentetzat jotzen ziren; gainerakoak, berriz, ez. Neurozientziaren garapenaren ondotik Gardnerrek landutako teoriaren arabera, ordea, pertsona guztiek zortzi adimen mota dituzte gutxienez, eta edonor da adimentsua, batean ez bada bestean.

GAIA 1:

ASKOTARIKO

ADIMENAK

“Denok gara inteligenteak, arlo batean ez bada bestean”

Askotariko edimenen teoria oso ezaguna egin da mundu osoan zehar, eta hezkuntza-paradigma aldatzeko premia ekarri du. Diskurtsoan hain sonatu egin den teoriak, ordea, zer-nolako isla du praktikan? Nola txerta daiteke Gardnerren aurkikuntza eskoletako eguneroko jardunean? Hik Hasiren Udako Topaketetan, galdera horiei erantzuten ahaleginguduko da Edurne Etxeberria, *Askotariko adimenak eta autoestimua, motibazioaren osagai* izeneko ikastaroaren bidez; Antsoingo Ezkaba eskolako Lehen Hezkuntzako irakaslea da, eta askotariko adimenen praktikarako *coacha*. Hala dio irakasleak: “Norberaren adimen nabarmenenak ezagutzeko aukera izango dugu ikastaro horretan, eta ahalik eta etekin handiena aterako diogu horri, beharrezkoak diren baliabide edo estrategiak ezagutuz. Hor ikasiko duguna ikasleekin aurrera eramaten badugu, ikasleen motibazioan eragin positiboa izan dezakegula ikusiko dugu”.

Zortzi adimen, gutxienez

Zortzi ordenagailu balira bezala, giza burmuinean, gutxienez, zortzi adimen mota daudela dio Gardnerren teoriak:

- Adimen linguistikoa: ondo komunikatzeko eta hizkuntzak (ahozkoa, idatzia, keinu bidezkoa...) egoki erabiltzeko gaitasuna da.
- Adimen logiko-matematikoa: logikarekin eta matematikarekin lotutako problemak ebazteko gaitasunarekin du zerikusia.
- Adimen musikala: doinuak eta erritmoak identifikatzeko, erreproduzitzeko eta sortzeko behar den adimena.



Edurne Etxeberria.

- Adimen zinetesikoa: norberaren gorputza erabiltzeko gaitasuna; adimen hau garaturik duten pertsonak gaitasun handia erakusten dute beren gorputza mugitzearekin lotutako eginkizunak ikasteko.
- Adimen bisual-espaziala: espazioaren hiru dimentsioak eta espazioko mugimenduak nahiz objektuen abiadurak identifikatzeko gaitasuna.
- Adimen intrapertsonala: norberaren burua ezagutzen eta norberaren emozioak kudeatzen laguntzen duen adimena.
- Adimen interpertsonala: besteekin erlazionatzeko eta harremanak izateko gaitasuna.
- Adimen naturalista: naturan dauden elementuekin (izaki bizidunekin, batez ere) harreman onak izateko gaitasuna.

Adimen horietako bakoitzak bere funtzionatzeko modua

GAIA 1: ASKOTARIKO ADIMENAK

"Denok gara inteligenteak, arlo batean ez bada bestean"

izango luke, baina, aldi berean, elkarrekin konektatuta egongo lirateke: "Aurkikuntza hori izugarritzko aurrerapausoa izan da hezkuntzarako. Sekulako iraultza da pertsona bakoitzak, gutxienez, zortzi adimen mota dituela jakitea, eta horietako batzuk besteak baino aurreratuago dituela jabetzea. Horrek esan nahi baitu, gauza batean ez bada bestean, denok garela onak edo adituak. Gainera, gaitasun agerikoago horiek izateak aukera ematen digu hain garatuak ez ditugun adimen horiek ere lantzeko, garatuago ditugun bidez", argitu du Etxeberriak.

Hezkuntza-paradigma aldatzeko premia

Askotariko edimenen teoriak agerian jarri du hezkuntza-arloan aldatzen joateko premia dagoela, Etxeberriaren aburuz. Izan ere, adituaren esanetan, Industria Iraultzaren aroan du jatorria gaur egungo eskolak. Produzitzeko beharrari erantzuteko sortu zen, modu estandarizatu batean industrian lan egiteko pertsonak prestatzeko: "Filosofia horrek eragina dauka oraindik hezkuntza-sisteman. Haurrak adinaren arabera sailkatzen jarraitzen dugu, testuliburu berbera erabiltzen dugu denentzat, denei modu berean irakasten diegu, guztiekin erritmo berean lan egiten dugu, azterketa berbera jartzen diegu denei... Hau da, taldea modu homogeneoan ikusten jarraitzen dugu oraindik". Egoera horren aurrean, apurka, aldaketak txertatzen joan beharra dagoela uste du irakasleak, beste ezeren aurretik, haurra modu indibidualizatuagoan artatzeko. Umea banako gisa hartu behar dugu, bakoitzaren



ahalmenak eta gaitasunak ezagutzeko eta ikasgelan hortik abiatuta lan egiteko.

Etxeberriari funtsezkoa iruditzen zaio adimen mota guztiei garrantzia ematea eta haurrei era guztietako gaitasunak lantzeko baliabideak eskaintzea. Haren irudiko, aukera andana eskaintzen du gaur egun gizarteak, eta eskolak ikasleari abagunea eman behar dio bizitzan bere bidea egin dezan: "Kirolari ona izan zaitezke, musikari ona, antzezle ona, arkitekto ona... Garrantzitsua da egindako horrekin norbera gustura sentitzea, eta gure egitekoa da haurrari bere prozesua bizi dezan aukerak ematea".

Testuinguru horretan, berebiziko garrantzia ematen die Etxeberriak bi adimen motari: intrapertsonalari eta interper-sonalari. Bi horien uztartzeak osatuko luke azken urteetan eskoletan hainbesteko garrantzia hartu duen adimen emozionala. Irakasleak dioenari jarraiki, norbera bere zirrarekin bizi da egunero, bere pentsamenduekin, bere jokaerekin, bere sinesmenekin... Eta, horiek kudeatzeko duen abilezia- ren arabera, gaitasun handiagoa edo txikiagoa izango du berez dituen adimen horiei etekin handiagoa edo txikiagoa ateratzeko. Izan ere, Etxeberriak jartzen duen adibideari kasu eginez, pertsona bat izugarri ona izan daiteke matema- tikan, baina, gero, testuinguru jakin batean aplikatu beharko du adimen hori: "Garrantzitsua ez da soilik ezaguera edo gaitasun bat edukitzea; aitzitik, adimen hori testuinguru batean edo bestean garatzen jakin behar da. Eta, horretarako, beste gaitasun batzuk ere eduki behar dira: harremanetarako gaitasuna izatea, besteari entzuteko gauza izatea, enpatia, errespetua... Eta, beste ezer baino lehen, norberak bere burua ezagutzea: nola kudeatzen ditugun gure emozioak, geure burua doitzeko gai ote garen..."

Nola egin tokia eskolan adimen mota guztiei?

Askotariko adimenen teoriak zer dioten ulertu ostean, irudimena jarri behar litzateke martxan eskoletan, Etxeberriaren hitzetan, adimen mota guztiei tokia egin ahal izateko. Dagoeneko baliabide asko daudela sortuta dio, baina, lehenik eta behin, konfort-zonatik ateratzea eskatzen diela horrek irakasleei. "Argi dago ikasleari ez diogula askotariko adimenak lantzeko aukerarik ematen, une oro testuliburu bat erabiltzen ari bagara". Txip-aldaketaz mintzo da aditua: "Zer lortu nahi dugu gaurko saioan?", galdetu behar lioke irakasleak bere buruari, eta, helburu horretara iristeko, ahalik eta modu gehien eta aukera desberdinenak pentsatu behar lituzke. "Jarduera batek zenbat eta adimen mota ge- hiago bildu barnean, orduan eta hobeto ziurtatuko dut ikasle guztiengana iristea".

Baina, oro har, askotariko edimenei eskolan lekua egiteko



bi era nagusi egon daitezkeela gaineratu du irakasleak. Bate-tik, adimen jakin baten lanketan zentratzea. Adibidez, Haur Hezkuntzaren kasuan, zortzi txokotan antola liteke espazioa. Hala, adimen mota bakoitzari erantzungo lioke txoko bakoitzak, eta aukera izango lukete haurrek nahi duten txokotik nahi duten txokora mugitzeko: “Haur Hezkuntzatik hasita, oso argi ikusten da bakoitzak non dituen bere interesak eta, horrekin lotuta, zein txokotan sentitzen den haur bakoitza gusturago. Haurrak ezagutzeko oso modu egokia izan liteke adimenen araberako txokoena”. Bestetik, berriz, gai zehatz edo helburu zehatz bat hartu, eta adimen mota guztiak lantzeko aukera emango duten jarduerak edo bideak diseina daitezke horren inguruan. Askotariko adimenen paleta deitzen zaio horri. “Adibidez, itsasoa har genezake aztergai gisa, eta, ikerbide horretan, tokia egin, adimen mota guztiei”. Hain zuzen ere, proiektu bidezko metodologiak, arazoen ebazpenetan oinarritutakoak edota lankidetzako ikaskuntzak oso modu errazean ahalbidetuko lukete lanketa mota hori.

Nolanahi ere, ikasle bakoitza kontuan izanik, irakasleak zorrotz aztertu beharko luke haur bakoitzak bizitzako askotariko egoeretan ahalik eta hobekien moldatzeko zer beharko lukeen. “Kontua ez da nik gustuko den dudana adimena soilik lantzea eta beste guztiari garrantzirik ez ematea, adimen mota guztiak baitira lagungarriak bizitzarako”. Baina, Etxeberriak erantsi duenez, komenigarria da ikaslea berak gogoko duen arlo horren bidez erakartzea, motibatuago sentituko baita hala. Gainera, gustuko duen adimen horri jarrai-

ki, hain gustuko ez dituen beste batzuetara iristea ere lortuko du: “Horretarako, ikasleak izan behar du bere prozesuaren protagonista. Haur bakoitzari bere erara ikasteko aukerak eskaini behar zaizkio. Horretarako, testuinguru aberatsak eskaini behar dizkio eskolak, eta irakasleak bidelaguna izan behar du”.

Autoestimua garrantzia

Askotariko adimenei tokia egiteak onura dakarkio haurren autoestimuari, Etxeberriaren irudiko, guztiok baikara argiak edo trebeak zerbaitetan. Eta berebiziko garrantzia du ikasleak horretaz jabetzeak: “Bizitzan aurrera egiteko motorra norberak bere buruarengan sinestea da, eta dituen askotariko gaitasunen jakitun izatea. Gure eskoletan, argi ikusten dugu egunerokoan: autoestimua baxua duten haurren errendimendua ez da autoestimua altua dutenena bezain ona. Azken batean, norberak bere buruarengan konfiantzarik ez badu, aurrera egiteko gai dela ikusten ez badu eta dituen pentsamenduak ezkorrak badira, horrek ez dio lagunduko modu egokian eboluzionatzen”.

Aldiz, askotariko adimenen teoriatik begiratuta, errazagoa da ikasleak lehen egunetik baliotsuago sentitzea. “Denok zarete hemen adimentsuak edo inteligenteak” esaten bazaie haurrei eta ideia hori transmititzen bazaie, errazago sinetsiko dute beren buruarengan, beraiek ere adimentsuak direla bermatuko dute, eta aurrera egiteko bideak irekiko zaizkie.



Rita Naveira eta Koldo Zelestino

2016ko Udako Topaketetan, antzerkiaren munduarekin loturiko bi eskaintza aurkeztu dizkie Hik Hasi-k irakasleei. Izan ere, irakaskuntzan ere erabilgarria izan daiteke edukiak ez ezik, askotariko gaitasunak lantzeko, nahiz ikasleen arteko elkarbizitza sustatzeko. Kurluxetan taldeak dramatizazioa izango du ardatz Bilborako prestatu duen ikastaroan; Esther Uriak aldiz, antzerkia hainbat formatutan landuko du Donostiako ikastaroan, indar berezia jarriz antzerki foroaren dinamikan.

GAIA 2: ANTZEZTUZ IKASI

Antzerkia eta dramatizazioa, irakasteko lanabes

Euskararen erabilera, pertsonaren garapena balio aurrerakoietan oinarrituta, eta atal artistikoa. Hiru elementu horiek uztartuta landu nahi dituzte Kur-luxetan antzerki-eskolako Koldo Zelestinok eta Rita Naveirak dramatizazioa hezkuntza-sisteman aplikatuz. Eta esperientzian ondutako jakintzatik prestatu dute *Dramatizazioa hezkuntza-sisteman* ikastaroa, Bilbon emateko ekainaren 28an, 29an eta 30ean. Izan ere, hamarkada bete daramate bereziki Bilbo eta inguruetako herrietako ikastetxeetan dramatizazioa lantzen; badira beraiekin jarraian lanean 8-9 urte daramatzaten ikastetxeak ere. Baina zergatik eta zertarako dramatizazioa, antzerkiaren baitan dauden hamaika adierazpenen artean? "Antzerkigintzaren helburua espektakulu bat egitea da: publikoak emaitza bat espero du, eta azkenean txalokatu egiten du. Dramatizazioa, aldiz, ez dago zentratua azken emaitzan, emankizunean eta lortuko duzun arrakastan, baizik eta prozesuan, hainbat gauza ikasten direlako eta garapen bat dagoelako", Zelestinoren esanetan. Horregatik, hain zuzen ere, iruditzen zaie bereziki erabilgarria hezkuntza-baliabide gisa, haurrak eskolan ikaste- eta garapen-prozesu betean daudelako.

Eta, garapena nahiz ikasketa jarraia eta iraunkorra izan dadin, prozesu ebolutibo gisa ulertzen dute dramatizazioaren alorrean egin beharreko lanketa. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 1go mailatik hasi eta LH6ra bitarteko programazioak osatu dituzte eskoletarako, mailaren, adinaren eta gaiaren arabera. Hau da, programazio horiek osatzerakoan, eskolaren curriculum, maila bakoitzari dagokion adin tarte zehatz horren ezaugarriak eta beraien helburu artistikoak hartzen dituzte kontuan. Urtero berritzen dituzte programazio horiek, beraiek ere beti daudelako ikasten.

Programazio horiek oinarri hartuta, 700 haur ingururekin aritzen dira lanean hainbat ikastetxetan. Dena dela, zailtasunak dituzte helburu duten bezala Lehen Hezkuntza osoan zehar modu iraunkorrean garatzeko dramatizazioa prozesu ebolutibo gisa, gehinetan LHko ziklo edo maila jakin batean besterik ez baitute lantzen ikastetxeek; gehinetan, aurrekontu arazoak tarteko, eta oraindik ere hezkuntza-sisteman kontzientzia falta delako antzerkiak eta bere adierazpenek irakasteko nahiz ikasteko lanabes gisa izan dezaketen indarrak. "LH1etik LH6ra, hori litzateke dramatizazioa lantzeko modu egokia. Eta LH6n iritsiko ginateke puntu gorenera, hau da, antzezlana egitera; hori iritsi behar da beste guztia landu ondoren. Baina askotan iristen gara ikastetxe batera eta bat-batean LH5ean landu nahi dute dramatizazioa, eta haurrei kosta egiten zaie soltatzea, lantaldea sortu egin behar da, erritmoa hartu... LH1etik hartuta, aldiz, prozesu ebolutibo horretan sartuko ginateke buru-belarri eta emaitza modu osoagoan ikusko litzateke LH6n", dio Naveirak.

Adin bakoitzari berea

Izan ere, txikiekin adibidez, clown teknikak lantzen dituzte, egokiagoak direlako haurrak modu horretan bizi duen garapena estimulatzeko. Besteak beste, "sentimenduak adierazteko eta izena ipintzeko sentitzen duten horri", dio Naveirak: "Badakite zerbait sentitzen ari direla, baina ez dakite zer den edo nola deitu horri, edo ez dakite euskaraz esaten. Beraz, erabilgarria da euskara lantzeko, baina baita hizkuntza menderatzen duten horiekin ere, zer gertatzen zien azaltzeko".

GAIA 2: ANTZEZTUZ IKASI

Antzerkia eta dramatizazioa, irakasteko lanabes

Nagusiagoak direnekin, bestalde, dramatizazioa baliabide aproposa izan daiteke edukiak lantzeko ere, historia ikasgaitik hasi eta zientzietaraino. "Seguru nago historia hobeto ikasiko luketela gai potoloen inguruan, demagun Bigarren Mundu Gerrari buruz, sketx-ak egingo balituzte: egoerak bizi egingo lituzkete, emozioak aterako lirerateke, komentarioak edo eztabaidak sor daitezke...", Zelestinoren ustez. Nerabeekin, gainera, psikologia ere lantzen da, eta elkarlanaren bidez, talde izaera indartu eta gatazkak kudeatzeko baliabide oso egokia izan daiteke.

Dramatizazioa, giza-harremanetan eta euskaran trebatzeko bide

Izan ere, baliabide hezitzaile izanik, edukiak lantzeko ez ezik, emozioak eta gaitasunak sustatzeko tresna ere izan daiteke dramatizazioa, hala nola, lotsak gainditu eta jendaurrean hitz egiteko abilezia lantzekoa, espontaneitatea garatzeko, gorputz adierazpena hobetzeko... Baina bereziki gizatasunean eta giza-harremanetan duen eragina nabarmentzen dute Kurluxetan-eko kideek: "Baliotetan oinarritzen diren pertsonak, gizarte justuago baterantz abiatuko direnak, ez dira sortzen soilik matematikak landuta, baizik eta giza-harremanetan trebatuta, eta dramatizazioa baliabide ezinhobe da harremanak lantzeko, beti ere oinarri hartuta euskararen erabilera eta pertsonaren garapena. Gainera, harreman horietan gatazkak kudeatzeko tresna baliagarria da". Horrekin batera, antzerkiak gizarteaz hitz egiteko aukera ematen du, eta, beraz, Naveiraren ustez, beste irakurpen bat egiteko gai diren ikasle kritikoak hezteko baliagarria da. Azken finean, Zelestinok esan bezala, "helburua ez da aktoreak sortzea, baizik eta dramatizazioak ematen dizkigun tresnak erabiltzea prozesu-hezitzaile bat garatzeko, eskolako curriculumean txertatuta".

Bestalde, euskara arrotza egiten zaien ikasleek, etxekoa ez delako edo beraien inguruan presentzia eskasa duelako, dramatizazioaren bidez modu natural batean erabiltzeko eta ahozkotasuna garatzeko bidea aurkitzen dute; hizkuntza horretan adierazkortasuna lantzeko, alegia.

Topaketak, garapenaren erakusleiho

Lehiaketan zale ez badira ere, ikasturtean zehar dramatizazioa beraiekin landu duten ikastetxeekin ikasturte amaieran antzerki-topaketak antolatzen dituzte Kurluxetaneke kideek, eta ondo baloratzen dute ekimena, gurasoei ere aukera ematen dielako urtean zehar beraien seme-alabek landutakoaz jabetzeko. "Urtero etortzen zaizkigu irakasleak eta gurasoak

esanez aho zabalik gelditu direla ikasle hark edo besteak egindakoarekin. Izan ere, ikusten dituzte jendaurrean burua altxatzeko edo hitz egiteko gai ez ziren umeak antzeztan, eta ohartzen dira aldaketa handia egin dutela urtebete eskasean. Imaginatu LH osoan zehar landuko bagenu!", dio Zelestinok. Horretaz gain, ikasturte amaieran ikasgaiaren ebaluazioa egiten dute eta gurasoei igortzen diete. Hiru ardatzetan baloratzen dute ikasleek egindako lana: adierazpena; irudimena eta autonomia; eta talde-lana.

Hik Hasiren Udako Topaketetarako prestatu duten ikastaroa nagusiki praktikoa izango da, eta adinaren nahiz taldearen ezaugarrien arabera erabilgarriak diren dinamikak, jolasak aurkeztuko dizkiete parte hartzen duten irakasleei: ariketa dramatikoak, hala nola, itzal beltzak, txotxongiloak, mimoa edo ipuingintza; jolas dramatikoaren elementuak; gidoigintza.... Baina izango da dramatizazioaren dimentsio antropologikoaz nahiz haur antzerkiaren beharraz hitz egiteko tarte ere. Izan ere, "ez da berdina dramatizazioa hemen ikasi edo Finlandian. Eta jendeak ez daki zer den pastorala edo libertimendua, eta helburua ez da gai horietan sakontzea, baina bai gutxienez parte-hartzaileak kokatzea".

Azken finean, ikastaroaren bidez Kurluxetan antzeki-eskolako lagunen helburua da hezkuntza-eragileak, irakasleak, dramatizazioaren ahalmenaz jabetzea, eta tresnak ematea beren jardunean erabiltzeko.

Antzerkia, DBHn elkarbizitza lantzeko elementu gisa

Kurluxetan-eko kideek bezala, Esther Uriak ere giza-harremanetan eta bereziki elkarbizitzarako elementu gisa antzerkiak duen ahalmena ikusaraztea izango du helburua Donostian emango duen *Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa* ikastaroan. Hain zuzen, doktorego-tza aurreko ikertzailea da Uria eta *Antzerkia, Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean elkarbizitza sustatzeko tresna pedagogikoa eta berritzailea* tesia ari da lantzen. Lan horren baitan, hainbat ikastetxetako Bigarren Hezkuntzako ikasleekin antzerkian oinarrituriko proiektu bat gauzatu berri du. Udako Topaketetan esperientzia horretan ateratako ondorioak partekatu nahi ditu. "Antzerkia eta elkarbizitza, horiek dira ikerketa lanaren ardatzak. Erakutsi nahi dugu antzerkiak horretarako ere balio duela, eta curriculumaren baitan beti ere, ez eskolaz kanpoko jarduera gisa", dio Uriak.

Lau ikastetxetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin 15na saio egin ditu Uriak, tutoretzan edo hiritartasun ikasgaiaren baitan. Lehen saioetan deshinibitzeko dinamika batzuk egin ondoren, prestatu behar zuten antzezlanerako gaiak esploratzeari ekin zioten. Hau da, nerabeek eurek beraien interesekoak edo kezka iturri di-



Esther Uribe.

tuzten gaiak jarri zituzten mahai gainean, eta guztien artean adostu zuten zein izango zen antzezlanean jorratu nahi zuten gai zehatza. Ondoren, inprobisazio-eraketan bidez osatu zituzten gai horri lotuta antzezlan oso zehatzak eszenak, eta gidoigintzari ekin zioten. Prozesuari amaiera emateko, eta hainbat entseguren ondoren, maiatzean aurkeztu zituzten euren antzezlanak lau ikastetxe horietako ikasleek.

Prozesu horretan guztian zehar, hainbat gaitasun landu dute ikasleek, antzerkia tresna pedagogiko gisa hartuta: autoestimua, emozioen adierazpena, gatazken kudeaketa... eta bereziki enpatia, bestearen azalean jartzea baitute antzerkiaren bidez. Horrekin guztiarekin batera, Uriak 4 K deitzen dituen balioak azpimarratzen ditu: komunikazioa, kontzentrazioa, konpromisoa taldearekin eta kolaborazioa. "Horiek landu dituzte antzezlan osoatzeko prozesuan. Azkenean agian asko gustatzen ez zaizun pertsona batekin lankidetzan aritzea dagokizu eta, tolerantziaren eta errespetuaren bidez egiten diozu aurre, guztiok partekatzen dugun proiektuak hartzen baitu lehentasuna". Horregatik, taldearen kohesioa lantzeko ere tresna indartsua delakoan dago Uribe.

Ikastaroan parte hartzen duten irakasleei "beraien motxilan sartzeko beste baliabide bat, beste tresna erabilgarri eta baliagarri bat" eman nahi die Uriak. Izan ere, berak elkarbizitzaren gaian jarri arren arreta, Kurluxetanekeo lagunek bezala uste du antzerkia erabilgarri dela edozein ikasgaitan eta edozein adinetan. "Adibidez, has zintezke historiako kapitulu zehatz bat lantzen, inprobisazioa eta rol jolasak erabilita. Zer imajina datozkit burura? Zein emozio?".

Bigarren Hezkuntzara etorrira, garrantzia berezia ematen dio nerabeek sorkuntza-prozesuaren ardura hartzeari, beraien gaietatik abiatutako sormenari. Eta hori uztargarria

iruditzen zaio historia, ingelesa edo zientzia irakasgaiekin. "Gainera, gidoigintzaren bidez hizkuntza eta idazmena ere landu dezakete, dramaturgia arloaren bidez. Dena dela, nerabeekin inportanteena da beraiek sentitzea beraiek ari direla zerbait eraikitzen, beraien gaia eta beraien antzezlan dela". Hala ere, uste du komenigarria dela irakasleak ere pertsonaia bat hartzea eta parte hartzea antzezlanean, ikasgela osoa hartuz espazio eszenikoak. Txikiekin aldiz, jolasak garrantzia handia dauka. "Zerbait egituratuagoa eman behar diezu, eta beraiekin jolastu. Adibidez, ipuin bat eman, eta pertsonaia desberdinen ikuspegitik antzeztea proposatu".

Dena dela, txikiekin edo nagusiagoekin egin lan, badira ikas daitezkeen oinarrizko dinamikak, eta Uriaren helburua da horiek irakastea ikastaroan parte hartzen duten irakasleei. "Taldearen beharretatik abiatu nahi dut, beraien espektatibei erantzuna ematen saiatu. Baina badaude globalki proposatuko ditudan ariketa batzuk, gure zentzumenak garatzeko, konfiantza hartzeko, deshinibizioa lantzeko..."

Oro har ikastaroa oso bibentziala izango da, "inola ere ez teorikoa", eta horretarako, besteak beste antzerki foroa izango da erabiliko duen tresna nagusia. Dinamika horretan antzezleen eta publikoaren arteko interakzioa indartsua da, guztien artean erabakitzen baitute zer norabide hartuko duen antzezlanak, nola bukatuko den: "Azkenean antzerkia erabiltzen da pertsonak edo egoerak aldatzeko, espazio parte-hartzaile horiek ahalbidetzen dute hori. Eta, ez da terapia bat, baina terapeutikoa izan daiteke!", dio Uriak.

Azken finean, Uriaren nahia da irakasleek beraien ikasgeletan "ariketatxo bat bada ere egiteko gogoia eta ausardia hartzea, animoa eta motibazioa zerbait egiteko, edozein ikasgaitan".



ELKARRIZKETA 1: BERONIKA AZPILLAGA

EHUko irakaslea Hezkuntza Zientzien Fakultatean

“Gela barruan irakasleak eta bere transmititzeko indarrak baldintzatzen dute beste guztia”

Egin dituen ikerketa guztietatik ondorio argi bat atera du Azpillagak: hezkuntzan edukiek eta metodologiak baino garrantzia handiagoa duela hori guztia komunikatzeko moduak. “Hezkuntzan *zer irakatsi?* galderari erantzuten saiatzen gara: konpetentziak, balioak, eduki curricularra, kontzeptuak... Baina alde batera uzten dugu hori guztia transmititzeko modua; alegia, *nola transmititzen dut?*”. EHUko irakaslearen ustez, bigarren arlo hori ere landu egin behar da, kontzientzia hartuta, modu teknikoan. Hain zuzen ere, horretantxe saiatuko da Hik Hasiren Udako Topaketetan emango duen *Irakaslearen komunikatzeko estiloa eta efikazia gela barruko hezkuntzan izeneko ikastaroan*.

Izan ere, Azpillagak dioenaren arabera, irakaslearen bizipena gela barrura hedatzen da. Horrexegatik da garrantzitsua kontuan izatea zer-nolako harremana duen irakasleak bere lanarekin eta irakaslearen bizipen hori artatzea: ziur sentitzen den, gus-tura egiten duen, interesekoa duen, bere eguneroko arazoetatik distantzia hartzeko zer-nolako gaitasuna duen...

Irakaslearen komunikatzeko estiloari eta efikaziari buruzko ikastaroa emango duzu. Zer dela-eta ikastaro hori? Ez al da hezkuntzan behar bezala komunikatzen?

Geletan eta eskolan ondo egiten da lan eta iruditzen zait hor daukagula gizarte mailan lehenengo arazoa. Samurregi esaten dugu irakasleriak gaizki lan egiten duela eta eskolak huts egiten duela. Iruditzen zait irakaslea prestigiatzen ez duen gizarte batek hezkuntza-sistema makala

edukiko duela beti. Hortaz, nik ez nuke esango inoiz irakasleek gaizki komunikatzen dutenik. Baina egin ditudan ikerketetan aukera izan dut gela barruetara sartzeko eta programa berbera aurrera eramaten irakasle desberdinak behatzeko. Atera dudan ondorio nagusia izan da segun eta nola egiten diren gauzak, alegia, segun eta nola garatzen diren programa horiek, emaitzak era batekoak edo besteak direla.

Zer-nolako garrantzia hartzen du, hortaz, irakaslearen komunikatzeko estilo horrek?

Komunikatzeko estiloa deitzen diot nik, baina ez daukat zalantzarik komunikatzeko estilo hori norbere izatearen sintoma bat besterik ez dela. Nolako naiz ni? Bada, nire komunikatzeko estiloak esango du ni nolako naizen.

Alde handia dago irakasle bat eduki edo beste bat. Gure bizitzan zehar ordu, egun eta urte asko ematen ditugu eskolan, eta hor era askotako irakasleekin egiten dugu topo, komunikatzeko estilo oso ezberdina dutenekin. Baina irakasleek oso garbi daukate eurentzako irakasle “ona” zein den eta zein “txarra”. Irakasleek irakasle bat ontzat edo txartzat jotzea oso lotuta dago berarekin izan dituzten bizipenekin. Horretan eragina du transmititzeko erak, harremanak, loturak...; alegia, komunikatzeko estiloak. Eta komunikatzeko estiloa ona denean hori gelako giroan islatzen da. Baina nire ustez arlo horretan ez dugu behar beste arreta jartzen. Irakasleen formakuntzan beti metodologietan eta edukietan zentratzen gara, eta oso gutxitan transmiti-

tzeko edo komunikatzeko moduetan.

Hortaz, irakasleen formazioaz ari garenean, arreta handiagoa jarri behar litzateke transmititzeko moduan?

Bai, dudarik gabe. Beti “zer irakatsi?” galderari erantzuten saiatzen gara: konpetentziak, balioak, eduki curricularra, kontzeptuak... Baina alde batera uzten dugu hori guztia transmititzeko modua; alegia, “nola transmititzen dut?”. Azken batean, gela barruan irakaslea antzezle moduko bat da, eta adierazten nahiz komunikatzen jakin behar du.

Era berean, irakasleak kontziente izan behar du ikasleari boterea eman behar diola, baldin eta ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren jabe izatea nahi badu. Horrek esan nahi du gelako komunikazioan hizketarako txaden kontrola irakasleak izan behar duela. Hau da, ni ikaslea entzuteko prest baldin banago, hari inportantzia eta prestigioa ematen ari naiz, eta estimatu egiten dudala adierazten ari naitaio. Ikaslea ahalduntzearen ideia hori ere, nire ustez, ez da nahikoa lantzen irakasleen formazioan.

Ikasleari entzutearen edota hitza ematearen garrantzia azpimarratu duzu. Hortaz, komunikazioa aipatzean zertaz ari zara zehazki?

Irakasleak gela barruan hiru gauza egiten ditu nagusiki. Batetik, ekintza didaktikoa; alegia, nola egituratzen duen bere klasea: edukiak, materialak, denboraren kudeaketa, taldearen antolaketa... Hori guztia teknika-rekin lotzen da eta hori da nagusiki fakultatean ikasten dena. Baina horretaz gain, badaude hainbat gauza kontzientzia txikiagoarekin gertatzen

direnak eta espontaneoak direnak. Horietako bat da komunikazio espontaneo, eta beste bat bizipena. Eta horrekin lotuta legoke pentsamendua, hau da, pertsona baten hezkuntza ulertzeko modua. Hiru ardatz horiek sartuko nituzke nik komunikazio kontzeptuaren barnean.

Bizipena, komunikazio espontaneo eta teknika jorratzea da hortaz gakoa?

Bai. Eta horren barruan nire ustez lehen urratsa da kontzientzia hartzea nik bizi dudana gela barrura eramango dudala, eta horrek baldintzatuko duela nik ikasleekin nahiz irakasle-kideekin dudana hartu-eman. Kontuan izan behar dut nire pentsamendua nire egiteko modua baldintzatuko duela.

Kontzientzia hartzea bizipenaren barruan legoke. Beste ardatz bat

litzateke komunikazio espontaneo. Komunikazio espontaneo da irakasle baten adierazkortasun gradua. Horren barruan sartzen da jaiotzen garenetik dugun bizikidetzarako gaitasuna. Jaiotzen denetik, helduekin elkarreraginean, umeak komunikatzen ikasten du. Antropologiak nahiz psikologia sozialak erakusten diguten moduan, gizakiak biziraupena bermatzeko komunikatzen jakitea ezinbestekoa du.

Kulturak, komunikazioari dago-kionez, kode batzuk ematen dizkigu, baina pertsona bakoitza bakarra eta eksklusiboa gara, eta kultura horren barruan, komunikatzeko eta espre-satzeko modu diferenteak garatzen ditugu. Batzuk efikazagoak dira beste batzuk baino. Beraz, transmititzeko efikazian dago komunikazio espontaneo horren garrantzia. Eta, zer da bada hezkuntza transmititzea ez bada?

Zentzu horretan, ez-hitzezkotasunaren jabe izatea oso garrantzitsua da. Zer esan nahi du gela ahotsa altxatzeak? Edo barre egiteak? Horiek denak gela barruan gertatzen ari denaren gaineko sintomak dira. Nire ustez hori ere landu egin behar da, ez soilik bizipenetik modu espontaneo batean, baizik eta kontzientzia hartuta, modu teknikoan: eszenifikazioa, adierazteko gaitasuna, askatasuna, ziurtasuna... Gela barruan sentimendu positiboak jorratzeaz ari naiz. Hori ere oso inportantea da.

Ez-hitzezkotasuna edota sentimendu positiboak teknikoki lantzearen garrantzia aipatzen duzunean, zertaz ari zara?

Adibidez, itxita dagoen irakasle bat gorputz espresio jakin batekin joango da gelara. Horren atzean egon daiteke beldurra, ziurtasunik eza, gelaren kontrola galtzeko kezka... edota an-



tzekoak. Baina hori guztia aurrez landu dezakegu, edo profesionalizaten goazen eran joan gaitezke lantzen. Irekitasuna, lasaitasuna, ziurtasuna... pixkanaka lortu daitezkeen balioak dira.

Zentzu horretan iruditzen zait bi ildo hartu behar direla kontuan. Batetik, garrantzitsua litzateke irakasleak autoestimu profesional altua izatea, gainontzean ez baitu ziurtasunik izango eta beldurrez joango baita gelara. Horretarako sozialki estimatzen den lanpostua izan behar luke irakaslearenak, prestigioduna. Bestetik, berriz, kontuan izanik ikasleak ikasiko badu sentimendu positiboak behar dituela, irakasleak sentimendu positibo horiek sortzeko lan egin behar du. Hori normalki intuizioz egiten du irakasleak, edo duen esperientziaren arabera, baina ez kontzienteki. Horretan dago hutsunea eta hor ekin behar diogu.

Hitzezko komunikaziotik edo diskurtso tradizionaletik harago doa hori guztia.

Bai, hala da. Komunikatzeko era tradizionalan boterea beti batek dauka. Eta besteak erantzun egiten dio botere horri. Zentzu horretan, zer gertatzen da geletan? Boterea daukanak, alegia irakasleak, askotan txanda guztiak hartzen dituela. Berak hitz egiten du beti eta ikaslea subjektu pasiboa da.

Gela barruan txandaketaren antolaketa gelako giroaren erakusgarri izan ohi da. Txanda horietan ikasleek asko parte hartzea, giro onaren isla izaten da, horrek erakusten baitu ikaslea interesatua dagoela. Beraz, esan dezakegu gela barruan irakasleak boterea duenez, giroa berak ezartzen duela, eta giroa diodanean tonu emozionalaz ari naiz. Irakasle batek ezarri dezake beldurrezko giroa, umorezkoa, goxotasunezkoa, ziurtasunezkoa... ezarri dezake mundu emozionala.

Izan ere, irakaslearen bizipena gela barrura hedatzen da. Horrexegatik da garrantzitsua kontuan izatea zer-nolako harremana duen irakasleak bere lanarekin: ziur sentitzen den, gustura egiten duen, interesekoa duen, bere eguneroko arazoetatik distantzia har-

tzeko zer-nolako gaitasuna duen...

Gako nagusi batzuk emate aldera, irakasle batek zer izan behar du kontuan gela barruan komunikazio eraginkorra bidera dezan?

Barne formaziorako biderik argiena hausnarketa da, nahiz eta akaso errazena ez izan. Beraz, batetik hausnarketa, eta bestetik, norbere lana besteekin partekatzea. Askotan gelako atea itxi egiten ditugu, baina kontrakoa egin behar genuke: gelako atea ireki eta irakasleak bata bestearekin elkarerraginean jardun. Nik irakasle moduan nire gorabeherak partekatzeko leku bat baldin badaukat, askoz ere hobeto egingo dut nire bidea: ziurtasun handiagoarekin, lasaia, gusturago...

Horri gehituko nioke irakasleak bere burua ez duela ikusten lanean ari denean. Beraz, hori lantzeko ere moduren bat aurkitu behar genuke.

Zenbait tokitan hasiak dira irakaslearen lana bidez grabatzen, eta gero taldean bideoan ikusitakoaren gaineko gogoeta egiten.

Hori da bide bat. Baditu bere zailtasunak, oraindik ere ez gaudelako gauza horietara ohituta, baina pixkanaka ohitzen joan beharko ginateke. Horretara, eta ebaluazioetara, eta hobekuntza-prozesuetara, eta kritikotasuna garatzera, eta zer transmititzen dugun zalantzan jartzera...

Gelan pasatzen den gauzarik garrantzitsuena harremana da, eta irakasle gisa, ezin naiz eskuliburuaren atzean gorde. Iruditzen zait irakaslearen sormena eta adierazkortasuna gehiago landu behar liratekeela. Irakasleak agertoki bat dauka, publiko bat dauka eta hor eszenan sartu beharra dauka. Horretarako tresna batzuk erabiltzen jakin behar du: begirada, ahotsa, keinuak... Hitzezkoa ez denaren bidez mundu emozional guztia ezartzen du irakasleak, beraz irakaslearen adierazkortasuna oso garrantzitsua da. Horretarako sentitu behar du bera egiten ari dena inportantea dela, baina askotan kontrakoa gertatzen da: gainkarga dauka, estresatua dago, irakaskuntzarekin zerikusirik ez duten hamaika eskaera ditu... Gizarte mailan irakasleen lanbidea ez dauka-

"Ikasleek irakasle bat ontzat edo txartzat jotzea oso lotuta dago berarekin izan dituzten bizipenekin. Horretan eragina du transmititzeko erak, harremanak, loturak...; alegia, komunikatzeko estiloak. Baina nire ustez arlo horretan ez dugu behar besteko arreta jartzen".

"Gela barruan irakasleak boterea duenez, giroa berak ezartzen du, eta giroa diodanean tonu emozionalaz ari naiz. Irakasle batek ezarri dezake beldurrezko giroa, umorezkoa, goxotasunezkoa, ziurtasunezkoa... ezarri dezake mundu emozionala".

gu batere mimatua.

Gela barruko komunikazioaren efikazian, zer-nolako garrantzia du irakasle baten hizkuntza-gaitasunak?

Ikastoletan ingelesaren irakaskuntza aztertuz hasi nintzen gai hau ikeretzen. Zein izan zen ondorio nagusia? Ingelese gehien zekiten irakasleak ez zirela ingeleseko irakaslerik onenak. Zenbait kasutan oso gutxi zekiten irakasleek hobeto erakusten zuten asko zekitenek baino. Gakoa zen hizkuntzaren jabekuntza nola bultzatzen zuen irakasle bakoitzak, eta konturatu ginen hitzekotasuna bigarren planoan geratzen zela, behintzat Lehen Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzan kontuak bestelakoak dira, aldi horretan diskurtsoak beste indar bat hartzen duelako.

Zertan zegoen irakasle batzuen eta besteen arteko diferentzia?

Oso jarraipen sakona egin genien bi urtez. Eta konturatu ginen funtzionatzen zuten irakasleen geletan alaitasuna zegoela, lasaitasuna zegoela, ikasleak gustura zeudela, arduratsuak zirela, eskolara pozik zetozeela... Besteetan, berriz, arazo diziplinarioak zeuden, ikasleak aspertu egiten ziren... Beraz, hitzekotasuna inportantea da, baina bere neurrian.

Eta ikerketa horietatik ondorioztatu zenuten irakasle "on" horiek zein ezaugarri zituzten?

Ondorioztatu genuen metodologiak badaukala indarra, baina indar handiagoa duela egiteko moduak. Teorikooi ez zaigu gehiegi gustatzen horrelakorik esatea, baina hori da egia. Gela barruan irakasleak eta bere transmititzeko indarrak baldintzatzen du beste guztia.

Esate baterako, ezaugarrietako bat da irakaslearen begiratzeko modua. Emaitza txarrak lortzen dituen irakasleak ikasleei begiratzeko duen moduak eta emaitza onak lortzen dituen irakaslearen begiratzeko moduak ez dute zerikusirik. Baina inork esan al die irakasle horiei nola begiratu behar duten?

Txandaketen azterketarekin ere sorpresak hartu genituen. Kontatu genuen gela bakoitzean zenbat aldiz



hitz egiten zuen irakasleak eta zenbat aldiz ikasleek. Konturatu ginen emaitza onak lortzen zituzten ikasleek besteen aldi bikoitzetan hartzen zutela hitza. Gero, irakasleak elkarriketatatu genituen eta ikusi genuen bakoitzaren pentsamenduaren isla zela ikasleek zenbatetan hartzen zuten hitza. Irakasle "onek" argi zuten: "Hizkuntza bat ikasteko erabili egin behar da".

Keinuen garrantzia ere aipatu duzu.

Keinuen azterketan ere ezustekoa hartu genuen. Bi keinu mota aztertu genituen: errepresentatiboak eta abstraktuak. Adibidez, "this is a house" ("hau etxea da") esan eta eskuarekin

etxeko paretak eta teilatua irudikatzea keinu errepresentatiboa litzateke. Pentsatzen genuen horiek ondo menderatzen zituen irakasleak emaitza onak lortuko zituela, baina oker geunden. Nork lortzen zituen emaitza hobeak? Txalo jo, ahotsa altxa eta esaten zuenak: "Ok. Good Morning! How are you?" ("Ondo da. Egun on! Zer moduz zaudete?") eta hitzei emazioak jartzen zizkienak; alegia, keinu abstraktuak erabiltzen zituenak. Izan ere, tonu emozionala keinu abstraktuek ematen dute, eta irakasle hori makurtu egiten zen, ikasleen izenak esaten zituen, ahotsaren gorabeherak zaintzen zituen, umeei begietara begiratzen zien...

Egin IRRIaren HARPIDETZA...
eta jaso gure MOTXILA ederra!



IRRIA ALDIZKARIAREKIN:

- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu eta balioetan hezi
- ✓ Babestu Irrien Lagunak Kluba egitasmoa eta behar bereziak dituzten haur eta familien elkarteak (bizipoza.org)

- ✓ Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki, etxean
- ✓ 44 orrialde, koloretan, komiki eta denborapasekin!
- ✓ Jaso klubeko bazkide txartela

NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. 902820806ra deituz
4. www.irrienlagunak.eus-en
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian





ELKARRIZKETA 2:

AITOR ALBIZU

Durangoko Berritzeguneko aholkularia

“Irakasleonek egitekoa da gela abegikorra sortzea, gela segurua, goxoa eta kohesionatua, alegia”

Orain dela bi urtetik, bullyingari aurre egiteko programa bat garatzen ari dira Durangaldeko hainbat ikastetxe, Berritzegunearen eta Aitor Albizu irakasle-aholkulariaren laguntzarekin. Ikastetxeetan bullyingari aurre egiteko hezkuntza-komunitateko kide guztien ahalegina bateratzea ezinbestekoa dela uste du. Era berean, gaiaren inguruan prestatzeko premiaz mintzo da, besteak beste, bullyingari buruzko ikuskera eta begirada ahalik eta antzekoena izan dadin. “Bakoitza bere usteetatik abiatzeko arriskua dago, bai eta gai honen gainean dauden mitoetan oinarritzeko ere. Horrexegatik, funtsezkoa da gai honen inguruan desikastea, hezkuntzan esku-hartze proaktiboa gauzatu nahi badugu”.

Hala, hiru fasetan banatutako prestakuntza-aholkularitza bideratzen dute Durangoko Berritzegunetik. Lehendabizi, zuzendaritza-taldearekin adosten dute irakasleekin egin beharreko prestakuntza, 6-8 ordukoa. Bigarrenik, ikastetxean sortutako talde tinko batekin –gerora ikastetxe-ko erreferentzia izango da bullyingaren eta bizikidetzaren arloetan–, sekuentzia-programa baten gaineko hausnarketa egiten dute. Eta, amaitzeko, ikastetxe bakoitzak, talde tinko horren gidaritzapean, ikastetxearen egoera aztertuko du, eta bullyingaren aurkako programa diseinatuko du.

Zein da eskolaren eta bullyingaren arteko lotura?

Dinamika sozial bat da bullyinga. Eskolan gertatzen da, umeek eskolan ordu asko igarotzen dituztelako. Eskolak, konstruktua soziala den

heinean, erantzukizuna dauka, eta bullyingari aurre egitea dagokio. Hezkuntzaren eta psikologiaren ikuspegi batetik abiatzen gara gu, eta orain arte leku askotan nagusi izan den ikuspegi indibidualista horretatik harago joan nahi dugu; ezaugarriei erreparatuz, ikuspegi ekologiko-sistemikoa ezarri nahi dugu.

Guk proposatzen dugun ibilbidea ikuspegi sistemikoan oinarritzen da. Ikuspegi horren arabera, bullyingari aurre egiteko, ezinbestekoa da irakasle, irakasleen, bestelako profesionalen nahiz familien parte-hartzea. Baina udalen eta eragile sozialen inplikazioa ere gehitu behar zaio horri. Azken finean, gizartean egituratzen diren giza harremanen ondorio ere izan daitekeelako bullyinga. Beraz, erantzukizun soziopolitikoa dutenek horri ere erreparatu beharko diote.

Horrekin batera, bost eremu handitan zentratu behar du eskoletako esku-hartzeak, eta era sinkronikoan jardun behar du guztietan: antolakuntzan, curriculumaren eremuan, partaidetzan, tutoretzan eta behaketa-prozesuan.

Zein izan da Durangoko Berritzeguneari bullyingaren aurkako programa lantzen hasteko arrazoi nagusia?

Ikastetxeetan tratatu txarren inguruan bizi duten kezka eta, kasu batzuetan, noraeza izan dira gai honi heltzeko arrazoi nagusiak. Gero eta eskaera gehiago heltzen zitzaizkigun Berritzegunera zonaldeko ikastetxeetatik, eta gai horren inguruko kezkak azaltzen zizkiguten. Noraezean zebiltzan gehienak. Askok ez zuten esku hartzen jazarpen egoeren aurrean,

eta, esku hartzen zutenean ere, esku-hartze horiek negatiboak ziren maiz.

Horrez gain, sarri, gutxietsi egin dira jazarpen-egoerak: ohikoak izan dira “umeen kontua da”, “horrela izan da beti”, “bestea ere ez da hobe...” edo antzeko esaldiak. Hau da, erasoari nolabaiteko justifikazioa eman zaio zenbaitetan, behar bada nahi barik edo inkontzienteki. Eta, azken batean, jazarpen kasuak gutxiesteak edo aintzat ez hartzeak deskontrola dakar; deskontrolak, inpunitatea; inpunitateak, jazarpenaren legitimazioa... Eta, azkenean, sistema osoa ahulduta geratzen da.

Haurraren alderdi sozialari eta emozionalari ere erreparatu diezue.

Haurraren ikasteko gaitasunaz hitz egiten dugunean, kontuan izan behar dugu normalean garapen kognitiboan jartzen dugula arreta, autorregulazioarekin eta metakognizioarekin zerikusia duten elementuetan, alegia. Baina, horrekin batera, badaude ikasi ahal izateko beste bi funtsezko oinarri ere, sarri gutxietsiak izan direnak: batetik, alderdi soziala; eta bestetik, alderdi afektibo-emozionala. Lurzoru hori ongi ongarrirituta egon ezean, nekeza da ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izatea.

Zer prozesu egiten duzue bullyingari aurre egiteko lanketa horretan?

Prestakuntza eta material sorta bat eskaintzen zaizkie zonaldeko ikastetxe guztiei, Berritzeguneari ditugun moduluen bitartez. Hau da, gu geu joaten gara ikastetxeetara prestakuntza ematera eta, prestakuntzaren ondoren, jarraipena egitera. Asko-

tan, bat-batean esku-hartze zuzena egin behar izaten da, bullying kasu batek eztanda egin duelako. Hau da, biktimari baldintzarik gabeko babesa eman behar izaten zaio; edozein tratu txar eten behar da, familiekin kontaktuan jarri behar duzu, informazioa jaso behar da kontakizunaren edo *heteroinforme* deritzenen bitartez, eta erasoan inplikaturik daudenean elkarrizketak egin behar dira, egoerari era positiboan erantzuteko konpromisoak eskatuz. Era sinkronikoan gelan bizikidetzaren positiboa berreraikitze jardueraren plana gehitu behar zaio horri. Lehenetsuna izan behar du ikastetxearentzat bullyingari aurre egiteak, eta horretarako uneak eta guneak bermatu behar ditu.

Edonola ere, ikastetxeak berak gai izan behar du bullyingari era antolatuan aurre egiteko. Burujabetza izan behar du. Beraz, aditu talde bat sortu behar da ikastetxe horretan. Horrengatik, ikastetxe batek gure programa aurrera eramateko konpromisoa hartzen badu, prestakuntza jaso eta 15 egunera osatuta eduki behar du jazarpen-egoerak artatzeko taldea

Zenbait arlotan aurrera egin dugu,

baina badirudi orain dela 20 urteko datuak eta gaur egungoak antzekoak direla bullyingaren gaian.

2012ko datuen arabera, % 21ekoa da bullyingaren prebalentzia Lehen Hezkuntzan. Apur bat jaitsi egiten da ehuneko hori Bigarren Hezkuntzan: % 15ekoa da. Baina, dena dela, esanguratsuak dira datuak. Nik esango nuke LHko hirugarren zikloan jotzen duela goia bullyingak; baina ez da egun batetik bestera agertzen. Bullyinga gorantz doan eskailera baten antzekoa da. Edozein zirrikitu baliatzen du eskolan sartzeko. Gatazken kudeaketaren inguruan ikastetxe batek ez badauka programa indartsurik, zirrikitua zabaltzen dio bullyingari. Edo taldean ez bada kohesio-lana egiten etengabe, bitartekaritza-sistematik edo ados jartzeko tokirik ez badago, programazioan tutoretza lantzen ez bada, edo hezkuntza-proiektuan oso ondo ardatzen ez bada bizikidetzaren positiboa nola garatu, bada, bullyingak bere lekua hartuko du. Beraz, eskolaren egitekoa da bullyingari ahalik eta zirrikiturik txikiena uztea.

Bitartekaritza-sistemaz edo ados

jartzeko tokiaz ere hitz egin duzu.

Bai, eskola guztiek eduki beharreko egiturak direla uste dut. Baina egoki erabili behar dira. Ezin ditugu bi ume bitartekaritza-sistema batera edo ados jartzeko toki batera bidali besterik gabe. Izan ere, tratu txarraren ezaugarrietako bat zera da: botere-sumisioa egon ohi da pertsonen artean. Bitartekaritza-sistema erabiltzeko, ordea, oreka behar da, parean egon behar dute bi haurrek.

Askotan esan ohi zaie haurrei: “Konpondu zuen artean”. Baina oso kontuz ibili behar dugu horrelako esarekin. Segur aski, konpontzeko gaitasuna izan balute, ez ziratekeen guragana etorriko. Laguntza eske etorri zaizkigu, eta guk zer egin dugu? Konturatu behar dugu laguntza eskatzea asko kostatzen dela, zaila dela. Izan ere, ahul ikusten dugu geure burua laguntza eskatzean. Segur aski, laguntza eske etorri zaigunerako, sekulako esfortzua egin du, eta, gainera, guk garrantzia kendu diogu haren eskariari, eta ez diogu behar besteko arretarik jarri. Askotan, ez gara kontziente keinu, esaldi, esan edota uste batzuk zeinen kaltegarriak diren, eta, horrelakoetan, ezinbeste-



koa da desikastea.

Eta nola utzi ahalik eta zirrikiturik txikiena bullyingari?

Hiru esku-hartze maila bereizten ditugu guk. Lehen mailan, irakasleonegitekoa da gela abegikorra sortzea; gela segurua, goxoa eta kohesio-natua sortzea, alegia, bizikidetzapositiboaren parametroetan erai-kiko dena... Irakasleak giza taldeenkudeatzaile dela konturatu behar du. Gizaki horiek nola hartzen duten arnasa, nolakoak diren, zer arazodituzten... jakin behar du. Horretarako, oso garrantzitsua da begiratzen jakitea. Eta, begiratu diodanean, ez da soilik behatu, baita zaindu ere.

Lehen esku-hartze maila honetan, bada deseraiki beharreko historia bat. Gatazka bat dagoenean, sarri entzun ohi dira honelakoak: “Trankil, bi haur horiek txikitatik ezagutzen dute elkar”. Argi izan behar dugu horrek ez duela ezer bermatzen. Are gehiagobeharbada rolez josita egongo dira, eta edozein astakeria egiteko justifikazioak aurkituko dituzte. Beharrezkoa da egoera horietan esku-hartze positiboak egitea.

Ikasle bakoitza nola sentitzen den jakiteko bitartekoak jartzea litzateke bigarren esku-hartze maila.

Bai. Eta, horretarako, ikasturtean bizpahiru aldiz (beharraren arabera) haurrei *autoinforme* bat egiteko eska geniezaieke, hausnar dezaten nola sentitzen diren: gustura dauden ikastetxean, lagunartean ondo sentitzen diren, euren emaitza akademikoekin pozik dauden, frustraziorik baduten, eskolarekiko harremanean zenbateko asebetetasuna duten... Ebaluazio hori egitearekin soilik, ikasleei beren ongizateaz arduratzen dela adierazten die irakasleak: “Nik gure ikasgela abegikorra izatea nahi dut, eta jakin nahi dut nola sentitzen zareten”. Kasu horretan, irakaslearen paperaz baino gehiago, irakaslearen jarreraz ariko ginateteke hizketan. Ikasleak pentsatuko du: “Hemen kontrola dago; muga batzuk daude; gu nola sentitzen garen jakin nahi dute; babestuta gaude; zainduta gaude...”.

Eta harreman dialogikoa gehitu behar zaio horri. Tutoretzetan, berba

egin behar da, enpatia lantzeko, besteei entzuten trebatzeko, bestearen lekuan jartzen ikasteko, sormenari eta autoestimuari lekua egiteko...

Horrez gain, bereziki garrantzitsua iruditzen zait pertsona solidarioa eta salatario ondo desberdintzea. Kontzeptu horiek ondo bereizi ezean, arazoak izango ditugu bullying kasuen aurrean. Asertibitatea, solidaritatea, enpatia eta horrelako balioak Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Hezkuntza amaitu arte landu behar dira. Azken batean, zirrarez berba egin behar dugu.

Eta zein da hirugarren esku-hartze maila?

Hirugarren maila jada bullyingak eztanda egiten duen uneari dago-kio, begi-bistan daukagun uneari, salaketa bat izan dugulako, ume bat lur jota etorri zaigulako, epaitegitik jakinarazpen bat iritsi zaigulako edota gurasoek jakinarazi digutelako. Zoritzarreko une bat da, baina hori ez da egun batetik bestera gertatu. Pixkanaka joan da garatzen. Kasu batzuetan, urteetan zehar. Gure porrotaren adierazle nagusia da. Gelako giroa zaintzeko unean edota behaketa-prozesuan, non egon gara? Segur aski, beste gauza batzuetan izan dugu burua, eta ez dugu jakin gertatzen ari zena ikusten. Beraz, ahalik eta azkarrren esku hartzea dagokigu orain. Lehenik, baldintzarik gabeko babesa eman behar diogu eraso jasan duenari. Bigarrenik, tratu txarra moztu egin behar dugu, kanpotik norbait gauzak konpontzera etorriko zaigulako esperoan egon gabe. Hirugarrenik, garbi utzi behar da ikastetxean ez dela horrelako jarrerarik onartzen, baina jokabidea eta pertsona bereiziz eta errudunen bila hasi gabe. Azkenik, behaketa-prozesu bati ekin behar zaio, atzean zer dagoen ikertzeko. Informazioa jaso behar da, datuak edukitzeko. Izan ere, gu ezin gara iritziekin ibili; aitzitik, argudioak behar ditugu. Eta, beste ezeren gainetik, kontziente izan behar dugu bullyinga lehentasunezko gai bat dela, gure sistema kolokan jar dezakeelako, hau da, hezkuntza-sistemaren kalitatea eta benetako zentzua zalantzan egon daitezkeelako.

"Sarri, gutxietsi egin dira jazarpen-egoerak: ohikoak izan dira 'umeen kontua da', 'horrela izan da beti', 'bestea ere ez da hobe...' edo antzeko esaldiak. Hau da, erasoari nolabaiteko justifikazioa eman zaio zenbaitetan".

"Bullyinga gorantza doan eskailera baten antzekoa da. Edozein zirrikitu baliatzen du eskolan sartzeko. Gatazken kudeaketaren inguruan ikastetxe batek ez badauka programa indartsurik, zirrikitua zabaltzen dio bullyingari".

EKARPENAK 1

OTSOAREN AHOAN BARRENA!

Mila eta bat iruditan zehar... ikasgelan nork bere Heroiaren Bidaia egiteko gonbidapen ausarta

Zuk eta nik gustuko ditugun istorioen heroia, bere eguneroko bizitza arrunta atzean utzirik, abenturara irteten da egun batez. Zu eta ni prestatzen hasten gara une horretantxe heroia patuarekin bat egiteko, bere urrats guztiak gertutik jarraitzeko, etxeko ataritik Itakaraino, beharrezkoa izango balitz.

Bai. Zuri eta niri –haur ginela eta oraindik ere– gustatzen zaizkigun ipuin, film, mito, bizitza erreal eta eleberrietako heroi edo protagonistak entzun duen **Abenturarako deiak erakarri eta beldurtu du aldi berean**. Ezer txo ere gertatzen ez den erresumaren erosotasun aspergarria lagatzea? Zeren truke? Erotu al haiz, Frodo, nora hoa? Denen ahotik entzungo du: etxean bezala inon ere ez! Aitzakiak etorriko zaizkio ezpainetara bere bidaia hasteari uko egiteko. Moisesen antzera, Egipton esklabo den bere herriarentzat askatasuna faraoiari eskatzera joan behar ez izateko,



Eduardo Fraile

Aresketa
Ikastolako
irakaslea eta
literatura tailerren
dinamizatzailea

alegazioak Yaveri berari ere aurkeztuko lizkioke, beharrezkoa izatera. Zuk eta nik bezala, beldurra eta zalantzaren aurrean heroia erakusten du eskakeorako joera eta trebezia izugarria. Zuk eta nik bezala, behin betiko urratsa ez du emango norbaitek edo zerbaitek bere buruarekiko ez duen konfiantza eskaintzen ez dion bitartean. Horixe alegien funtzioa! Virgilio zaharra agertu beharko zaio Danteri infernuetako ate beldurgarria zeharkatzen ausartu dadin (*Lasciate ogni speranza, voi chentrare*, pasatzen baldin bazara, ez dago bueltarik, laguna, dio atearen gaineko inskribu beldurgarriak). Eta Teseo bera ere ez da ausartuko labirintoan sartu eta Minotauroa ukabilka akabatzen, ahalik eta Ariadnak bueltako bidea seinalatzen duen haria eskaintzen dion arte. Hansel eta Gretelek ez dute zorte bera izango: euren *haria* txoriek jango baitute, eta baso mehatxagarria zeharkatu beharko dute bizitzak ipiniko dizkien heldutasun probak gainditzeko.

Beste heroi batzuek, aldiz, ez dute inoren laguntzarik beharko etxetik irteten eta bide *zuzenetik* aldentzeko. Txanogorritxuk eta Pinotxok jakin bai baitakite ezin zaiola ezer gertatu etxean gelditzen denari. Baina eurak desiratzen ari dira “zerbait gertatzea”... Abentura – latinezko



adventus, gertaera hitzetik eratorrita – inoiz urratu ez duzun debekatu-tako bidean soilik aurki dezakezu, otso maltzurak bizi diren basoetan, edo balearen sabelean. **Abenture-tako heroiak ondo baino hobeto daki etxean geldituz gero ez duela sekulan topatuko altxorrik prezia-tuena, bere bizitzaren zentzuarena**, Jung-ek irakasten digun *self-arena*, hain zuzen ere.

Erlojuaren atzean ezkutatzen den Antxume Txikiak itxoingo dio amaxori, harekin eta haren babesaren pean baso ilunean zeharreko bere lehen txango heroikoari ekiteko. Helduaren konpainia izango zaio behar-beharrezkoa etxetik kanporako lehen urratsak ematera ausartu dadin. Irene Henchek (Psikodrama Sinbolikoaren sortzaileak, *Heroiaren bidaia hamabi ipuinetan zehar* artikuluan) azalduko digu nola, honen ondoko ipuinetan, heroiak ekingo dion bere bideari amaren oniritziaren zain egon gabe, are gehiago, amaren debekua urratuz: “Ez atea inori ireki”, “Ez inorekin hitz egin amonaren etxerako bidean”... Bai, ama, baina horrela... nola haziko naiz? Benetan maite nauzun ama izan nahi baduzu eta nik zu maitatzea, orain gogoaren zilbor estea etetea, beste biderik ez dago, gogoratuko dio kantariak. Atxiki-mendu edo apego aroari separazio

edo bereizketarenak jarraitzen diolako. Maitasunez jositako loturak maitasunaren poderioz baino ezin ditugulako askatu. Ipuinek, istorioek esku-beteka eta doan ematen diguten maitasunaz, hain zuzen ere. **Nor naiz? galderari sutondoaren babeslekutik urrun erantzun beharko diolako heroi txikiak**, geuk sutondoan entzuten ditugun istorioen protagonista bilakatzeko hain zuzen ere.

Zuk bezala, nik bezala, haurrak bezala... abenturetako heroiak ere praktikatzen du transgresioa dosi eta modalitate desberdinetan: desobedituz, gezurrak esanez, lagunei bizkarra emanez... Badaukagu, zorionez, noren ispiluan begiratu gure buruari. Ipuinek, istorioek irakasten digutelako gure burua barkatzen, gure bidea izan den bezala onartzen, bere itzal eta argiekin. Bidai heroikoaren ereduaren begiratzen diren narrazioen abordatze-pedagogiko egokia –serio eta ludikoa aldi berean– egiten baldin badugu, ikasleak aukera izango du bere autokontakizuna sendatu eta gaurkotzeko, bere historia istorio bihurtuz, haren subjektu eta autore sentitzera iristeko, bere iraganaren pasarte zailak hari narraitibo batean kokatuz, non patu dramatikotik ihes egin dezakeela konturatuko den alaitasunez.

* * * * *

On the Road... Etxetik irten eta itzulerarik ez duen atea zeharkatu ostean –bere gibelean Itsaso Gorriko urak berriro itxi direlako, amaordearen herio kondenari iheska baso beldurgarria igaro berri duelako, edo diskoteka hartako aparkalekuan Louisek Thelmaren erasotzailea bi aldiru pentsatu gabe hil egin duelako–, herroia joango da pixkanaka-pixkanaka ahalduntzen eta bere buruarengan konfiantza irabazten. **Egun batetik bestera ez dugu ikasten dragoiak akabatzen**, inor ez da ikasia jai. Probarik proba –Iparraldeko Sorgin Onak emandako zilarrezko zapata eta musuari esker, Gandalf-en gidaritza magikoaz baliatuz edo ikastolan *andereñok* egunero-egunero kontatzen dizkion ipuin miragarriak gogoratuz– herroia joango da bere *Iniziazioa* osatzen, ahalik eta Dragoi Handiari –bere Itzalari– aurre egiteko kondiziotan sentitzen den arte.

Joseph Campbell-ek identifikatutako Monomitoaren azken fasean sartzeaz dugu jadanik gure herroia: bere ibilbidearen zirkulua ixteko, “Etxera Itzultzearena”, hain zuzen ere (*heroi* hitzaren etimologian –*zerbitzaria*– bere periploa osatu ondoren irabazitako jakintza komunitatearen zerbitzura ipintzen duenaren ideia baitago). Lehenago hainbat prota-



gonistari heriotza sinboliko batetik igarotzea suertatuko zaio (Edurne Zuri, Loti Ederra...), ezkontza *sakratu* batez borobilduko dena (piztia akabatu izanagatik bidezko saria, sarritan) ... Heroiaren *apoteosian* gaude, Akilesek berak ere inoiz amestu ezin lezakeen aintzan ezin gorago dago kokatuta orain. Baina segituan entzungo du protagonistak bueltarako deia: berriro ere erresistentzia, berriro ere inertziaren legea. Mediterraneoko munstro guztiak hil eta gero, hamaika naufragiotan bere tripulazioa galdu ondoren, Ulisesek zazpi urte daramatza Calipso ninfa ederrik ederrenarekin Oigia irlan, bere bidaia bukatzeari uko egitearen truke hilezkortasuna eskaini dio. Ulisesek badaki Itakara itzulita jainkoen pribilegioak bukatu egingo zaizkiola. Penelope, Telemako, lagunak, maite dituen pertsona guztiak ikusi beharko ditu zahartzen, konfliktuak eta gaixotasunak pairatzen, eta, azkenean, hil egingo “zaizkio”. Calipsoren tentazioari uko eginez gero, Ulises bera ere hil egingo da betirako egun batean. Eta hala ere, bere abenturaren zirkulua osatzea da

bere hautua, Itakatik Itakara, Poseidonek bidalitako ekaitzari aurre eginez berriro itsasoratuz, baltsa txiki batean.

Fikzioaren funtzioa ez delako fantasiako mundu baten promesa egitea, baizik eta, bere bidea egiten duen heroiarekiko identifikazio eta ereduaren bidez, bizitzaren zailtasun eta proben aurrean gure barruko haurraren bihotza itxaropenaz, kontsolamenduz eta konfiantzaz betetzea. Bere haurtzaroaren Itaka atzean uzten ari den haurra eta nerabeari –baina baita zuri eta niri ere– **bizitzan oreka ematen digun zentzua eta norabidea**, topatzen, finkatzen, hautatzen laguntzea da abenturetako narrazioak betetzen duen eginkizuna.

* * * * *

Bruno Bettelheim-ek esaten digu Serezadek mila eta bat gau behar izan zituela Schahriar errege krudel eta misoginoaren bihotz mindua sendatzeko. Antologiaren idazle ezezagunak zehaztapenik ez digu ematen bisirren alaba nagusiaz. Soilik eder eta liraina izateaz gainera, antzinako herri, errege, gertaera eta

poetei buruz mila bat liburu zituela irakurrita. Eta adoretsua zela: “Aita, erregearekin ezkondu nazazu eta zin degizut erresuma honetako emakumeak tiranoaren hatzaparretatik askatuko ditudala edo hil egingo naizela ahaleginean”. Carol Pearson-en ikuspegitik, Gerlari eta Ongile izenak jasotzen dituzten eboluzio edo transformazio arketipoen artean kokatu beharko genuke Serezade. Armarik gabeko Gerlaria, irudimenaren bidezko Ongilea, mila eta bat gauetan zehar bizitzak kolpatutako erregearen **barneko haur minduan erresilientziaren txinpartak irazeki dituen**. Ipuinen kandela, abenturaren sua, bidai heroikoaren argia, ikasgelan pizturik iraunarazten baldin baditugu, taldearen dinamika atseginagoa, interaktiboagoa, emankoragoa bihurtzeaz gainera, prebentzio eta oreka pertsonalaren aldetik txertorik eraginkorra, depresioarekiko antidotorik efikazena ariko gara inokulatzen gure ikasleengan.

Inuzentea, Umezurtza, Arlotea, Gerlaria, Ongilea, Bufoia, Aztia... Pearson-en irakaspenaz (“Barneko heroia”) ulertzen ditugu narrazio heroikoaren bilakaeran –eta zure eta nire bizitzaren garapenean!– dauden transformazio arketipo garrantzitsuenak. Batetik bestera igarotzean, fase bakoitzari dagozkion zailtasun eta itzalak gainditzeko, une bakoitzak eskaintzen duen ikaskuntza barneratzerakoan, liluratuta gaituen istorioaren protagonista joango da gero eta gehiago ahalduntzen, sekulan ere lineala izango ez den bere ibilbidea osatzen duen bitartean. Heroia –aspaldian neskato edo mutiko zelarik etxeko ziurtasuna laga zuena–, zahartuta, nekatuta agian, baina esperientziatzat eta jakituriaz beterik, **iritsiko da bere abiapuntua izan zen helmugara, espiralean eta gorantz den amaigabeko zeharbide bat marrartzuz**. Ahatetxo Itsusiaren antzera, umezurtz sentituko da, munduak errefusatu sarritan, noraezean, lakuan islatzen den bere irudia gorrotatu beharko du akaso. Baina bidean amore eman barik, azkenean, agian gutxiago espero zuenean, bere bizitzari sena emango dion altxorarekin topatu egingo da (identitatearena,

Andersen-en pertsonaiaren kasuan), bere bidaia jarraitzeko abiapuntu berria bilakatuko dena.

Itakatik Itakara... Claudio Naranjo bidaiaren oinarrian dagoen abiapuntu-helmugaren inguruko paradoxaz mintzatzen zaigu Gilgamesh heroi sumeriarraren abenturaren berri ematerakoan: hilezkortasunaren bila egindako bilaketaren bukaerara iritsita, Gilgamesh konturatzen da **bidaiak ez dela beharrezkoa izan, baina horren kontzientzia izatera heltzeko behar-beharrezkoa izan da bidaiatzea!** Bere zeharbidearen amaieran abenturaren poderioz Aztia (Jakintsua, Maitalea...) bihurtu den heroiak topatzen delako hasierako Haurrarekin. Ezertxo ere ez dakienaren inozentziatik, “ezer ez dakidala, besterik ez dakit” jakituria sokratikora, beti zerbaite gehiago ikasteko, umiltasun eta ausardiaren urrats berriak emateko prest dagoenaren inozentziara.

* * * * *

Otsorearen ahoan barrena! Ez gara lerro hauetan irakurketa lantzeko edota motibatze metodologiatik bat proposatzen ari, jainkoek libra gaitzatela halako atrebentziatik. Merkatu pedagogikoa horretarako irakasleoi mila eta bat errezeta eskaintzen dizkiguten metodologiez gainezka dago. Heroiaren bidaiak ez du lehiatu nahi argitaletxeekin. Aldez aurretik galdutako gudu batera ez dugu bidaliko irakasle gogotsua. **Mila eta bat errezetaren ordez, mila eta bat istorio, ikasleekin mila eta bat esperientzia eta abentura bizitzean datza gure gonbidapena.**

Aresketa Ikastolako nerabeengandik ikasitakoaz, eta azken hamarkadan hainbat Kultur Etxetan dinamizatu ditudan literatur tailerretako pertsona helduekin egindako eskarmentuaz, joan naiz narrazioa aboratzeko zenbait estrategia balioztatzen eta, batez ere, **ikasleek eta irakasleek modu errazean ulertu eta erabili dezaketen marko edo eredu teoriko heterodoxo** bat sortzen, zeinaren ispiluan ikasgelara ekartzen ditugun istorio gehienak islatu daitezkeen. Campbell, Pearson eta beste hainbat maisu eta maistrari baimenik eskatu barik, **guk Erroskoa deitzen diogu**

gure heroien bideari. Ikasgelaren erdian, osatzen dugun zirkuluaz inguraturik, pizten du taldeak bere *Sua*, gure imajinarioaren ehunka eszena eta pertsonaiez elikatzen dena. Tribuko kideak baikinen hasten gara denok Suaren, irudien inguruan bueltaka, emeki-emeki, agian musikaz lagunduta, irudiak aukeratzen baino, haiek gu aukera gaitzaten utzirik, ahal dela aurreiritzirik gabe, ahal dela gure Haurrari, gure Inuzenteari, protagonismoa emanez bidaiaren hasiera une honetan.

Jolastea nork bere burua jokoan jartzea da. Arriskatzea. Eskolaren marko serio eta programatuan kontrol ezari bere aukeratzea ematea. Ikasleak eta gu geu. Joaquín Jiménez Oroz nire maisuari behin eta berriz entzun diot **irakasleok gure burua kargugabetezko prest** egon behar dugula gure desioa baldin bada ikaslea subjektua bihurtu dadin. Ikasleak “bere” bidea egitea (eta ez nire programazioan edo urruneko kontrolaren bidez argitaletxe batean finkatutako curriculum edo bidea), eta testuliburuan erabakitako erantzunen partez –“erantzun bakarraren” ordez– ikasleak galdera eta hipotesi anitz eta berriak libreki egitea, bere aurrean biluzten zaion bizitzarekin solasaldian. Aldez aurretik finkatutako programaren partez, taldeari gonbite bat luzatzea, horixe gure proposamena. Jean-Claude Carrière izendatutako “gezurtion zirkuluan”, hautatzen ditugun –hautatzen gaituzten– irudien bitartez, taldeak –eta norberak– irekitzen du fikzioaren meloia, konturatu gabe **hasten gara iker-tzen gure autokontakizunean, non istorio batek beste istorio askotara eramango duen taldea**, non Jordi Balló eta Xavier Pérezi jarraituz (*La semilla inmortal*), argudioak, aroak, kontinenteak eta generoak gurutzatuko diren, non narrazioaren “hazi hilezkorak”, urrezko iturburuak, aurkitu eta dastatuko ditugun.

Gianni Rodari gogoan, nahikoa izaten da leinuko aztiak lakuaren ur geldian istorio baten harritxo botatzea, hamaika olatu, hamaika uhin, eta mila eta bat istorio gure barruko Haurraren bihotzera iristeko.

Leinuko aztiak... edo zuk eta nik.

“Ez gara lerro hauetan irakurketa lantzeko edota motibatze metodologiatik bat proposatzen ari, jainkoek libra gaitzatela halako atrebentziatik. Merkatu pedagogikoa horretarako irakasleoi mila eta bat errezeta eskaintzen dizkiguten metodologiez gainezka dago. Heroiaren bidaiak ez du lehiatu nahi argitaletxeekin. Aldez aurretik galdutako gudu batera ez dugu bidaliko irakasle gogotsua. Mila eta bat errezetaren ordez, mila eta bat istorio, ikasleekin mila eta bat esperientzia eta abentura bizitzean datza gure gonbidapena”

EKARPENAK 2

HEZIBERRI 2020 - ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

"Zientziak gizarteko arazoak aztertzeke ikuspegi berriak eta irekiak eskaini behar ditu"

Lehenengo eta behin, Heziberri 2020 programa, hau da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko ezarri duen planaren aipamena egin beharra dago. Plan honek Europako Kontseiluak hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020rako finkatu zituen ildo estrategikoak eta euskal hezkuntza-sistemak orain arte lortutako emaitzak bere baitan hartzen ditu. Beraz, esan daiteke, bidea zein izan behar den jakinarazten digula; seguraski, ikastetxeetatik begiratu, bide xume bat baino besterik ez bada ere.



Begoña Burgoa Etxaburu

EHUko irakaslea Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Sailean; eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko LIEC ikerketa taldeko kidea

Egungo gizarteak aspaldi onartu du gure hezkuntza-sistemak pertsona konpetenteak hezteko erronkari heldu behar diola; hau da, eskaera konplexuei erantzuteko eta zereginak egoki burutzeko gai izango direnak. Horregatik Hezkuntzak ikasle guztiek garatu beharreko Oinarrizko Konpetentziak zeintzuk diren ezarri du. Oinarrizkoak dira pertsonok geure burua errealizatzeko eta garatzeko, bai eta herritartasun aktiborako, inklusio sozialerako eta enplegurako behar ditugulako (Europako Erki-degoen Batzordea, 2006). Horrek trebetasun praktikoak, jakintzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizartearen eta jokabidearen beste osagai batzuk elkarrekin mugimenduan jartzeko gai izatea eskatzen du.

Zientzia konpetentziaren kasuan (diziplina barruko oinarrizko konpetentzia), horrek esan nahi du jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzeko gai izatea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta



aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak hainbat testuingurutan erabiltzeko gai izatea, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko. Irakur daitekeen moduan, esaldi luzea, konplexua, eta oso zaila erronka horri ekiteko.

Hori guztia aurretik esanda, nola ikusten dut nik neuk hau dena? Gure ebaluazio-emaizak estatuko beste herrialde gehienetakoak baino hobekak diren arren, geure buruari galdetu beharko genioke horiek izan beharko luketeen bezain onak diren. Nire ustez, gure hezkuntza-sistemak sendotasunak dituen arren, ahuleziak ere baditu, sarri ebaluatutakoak baina gutxitan hezkuntza sektore guztien partaidetzaz sakonki hausnartuak. Bestalde, ikastetxeak egungo erronka berri guztiei nola ari diren erantzuten jakin behar dugu: nola sentitzen diren, zein lehentasun ezarri dituzten, zein behar dituzten, eta abar.

Zientziaren irakaskuntzan aurrerapausoak eman diren arren, zientzia konpetentzia garatzeko orduan, pauso horiek nahiko ahulak eta xumeak izan direla uste dut. Azken hiruzpatalu urteetan, gainera, atzerapauso sumatu dut; irakasleen formazioan, adibidez, ingelesaren aldeko apustua

egin da, zientziaren didaktikaren aldekoa egin beharrean. Irakasleei eskatzen zaien erronka gelatik kanpo ikusten dena baino askoz konplexuagoa da, eta irakasleek erronka horri aurre egiteko uste den baino laguntza gutxiago jasotzen dute. Heziberriren moduko marko batean, irakasleek formakuntza teoriko-praktiko gehiago behar dute, egunero ikastetxeekin lan egin behar da, eta ezinbestekoa da Unibertsitatearen inplikazio zuzena. Adibidez, ni Universitat Autònoma de Barcelona-ko LIEC (Llenguatge i Ensenyament de les Ciències; <http://grupsderecerca.uab.cat/liec/es>) partaidea naiz, eta bertan ikusten dudana panorama oso bestelakoa da. Matematika eta Zientziaren Didaktikako Departamentua eta hainbat ikastetxe elkarlanean ari dira; batetik, gelara metodologia berriak, proposamen berriak, formazio berriak eramanaz, eta bestetik, horren guztiaren inguruan doktoretza-tesiak eginez.

Xede konplexua, proposamen anitzak
Planteatutako xedea konplexua denez, proposamen anitzak eskatzen ditu:

- Gure irakaskuntza ereduak ezin du jarraitu zientzia zerbait itxia, amaitua eta testuingurutik kanpo dagoena dela irakasten. Zientziak

gizarteko arazoak aztertzeko ikuspegi berriak eta irekiak eskaini behar ditu, beti berrikusi beharrekoak eta eztabaidagarriak.

- Irakasleok, pertsona adituak garen heinean, sarri hausnartu beharko genuke zein bide jarraitu behar dituen ikasle batek, bereganatu beharreko edukiak erakitzeko. Imajina dezagun gure umea eraikin bateko sarreran dagoela, eta bere adinaren arabera 1., 2., edo 3. solairuraino igo behar duela. Zer ikasi beharko luke lehenengo? 1. solairura igotzen, ezta? Duda barik gure umeak ezintasunen bat izango balu, beharrezkoa duen egokitzapena eskaini beharko genioke. Adibide zehatza jarriko dizut: zer jakin behar du lehendabizi ume batek flotagarritasuna zer den ulertzeko? Edo giza gorputzeko aparatua bat zer den ulertzeko? Zer da garrantzitsuagoa, aparatuen izen guztiak ezagutzea ala aparatua zer den bereganatzea? Klaseetan sarritan ematen diren kontzeptu guztiak ezinbestekoak dira? Irakasleok badakigu zientzia konpetentzia garatzeko marko baliogarriak zeintzuk diren? Honetaz hausnartu dugu

"Ikasleek laborategiko praktikak egin egiten dituzte, baina gehienetan irakasleak esandakoaren errepikapena izaten dira. Zientzia ikasteak, ordea, zientzia nola egiten den ikastea ere esan nahi du. Ikasleek arazo zientifikoak identifikatzen, baloratzen, ulertzen eta haiei erantzunak bilatzen ikasi behar dute".



- mintegietan?
- Zientziako laborategiko praktikak sarritan irakasleak guztiz ezarritako ildo itxi batetik abiatzen dira. Ikasleek praktikak egin egiten dituzte baina gehienetan irakasleak esandakoaren errepikapena izaten dira, ariketa praktikoak. Zientzia ikasteak zientzia nola egiten den ikastea ere esan nahi du. Ikasleek arazo zientifikoak identifikatzen, baloratzen, ulertzen eta haiei erantzunak bilatzen ikasi behar dute. Beraz, geletan zientzia egin egin behar da. Horretarako, irakasleak gelako hausnarketa bideratu behar du.
- *Konpetentzia* kontzeptuak testuinguru berri eta konplexuetan edukiak aplikatzen jakitea eskatzen du. Zergatik izaten dituzte gure ikasleek irakasleok espero ditugun baino emaitza kaskarragoak? Non dago gakoa? Erantzunak mota askotakoak izan daitezkeen arren, ni neuk gutxitan aztertu den arrazoi mota baten inguruko aipamena baino ez dut egingo. Konpetentzia izateko derrigorrez edukiak lehenengo eta behin transferitu egin behar dira. Transferentzian arituak diren ikerlariek, momentu horretan ikasleek gelan bizi izandako egoera berreraikitzen dutela gogorarazten digute. Horrek esan nahi du ikasleen azterketako momentua eta etxean ikasi duen edo ez baloratzea ez dela nahikoa

- egoera aztertzeko. Ondo legoke geure buruari galdetzea, aurrez aipatutako solairuen progresio hori nola landu dugun. Bestalde, hausnarketa honetan ikasleek izan duten papera ere kontuan hartu behar dugu, baita eurekin izandako komunikazio estiloa ere (interaktiboa edo ez interaktiboa; dialogikoa edo ez dialogikoa). Azken finean, gure irakats-estiloari erreparatu behar diogu.
- Ebaluazioa erregulazio gisa ulertu behar da. Egungo ebaluazio gehienek oso gutxi laguntzen diote ikasleari aurrera egiten, gehinetan beranduegi egiten direlako eta irakasleak soilik egiten duelako. Ebaluazioa izugarritzko erronka da, derrigorrez heldu beharrekoa, eta horretarako proposamen zehatzak behar dira.

Estrategia metodologiko berriak, ezinbesteko

Aurrez aipatutako xedeak aurrera eramateko estrategia metodologiko berriak garatzea ezinbestekoa da:

- Ikasketa testuinguru jakin batean egin beharrekoa da, hau da, zientzia irakasteko ingurune hurbila erabili behar dugu. Baina ingurune hurbil horrek ikaslearentzat motibagarria izateaz gainera, ikasi beharrekoa gauzatzeko esanguratsua izan behar du. Horrek esan nahi du ikasleek planteatutako testuinguruetatik harago joan behar dugula, eta

gelan ere testuingurua kudeatu beharra dagoela. Gaur egungo testuliburuetan testuingurua lehen baino gehiagotan agertzen bada ere, gehienetan sarrera gisa planteatzen da, baina ez gai osoaren euskarri gisa. Hau da, azkenean testuingurua alde batetik doa eta ikasi beharrekoa bestetik.

- Hasieran aipatutako solairuen kontua berriro gogoratu nahiko nuke. Zientziaren didaktikan igoera honi *modelizazio* deritzo. Hau era egokian bideratzeko, irakasleak prozesuan eman beharreko pausoak identifikatu behar ditu (ikasleak behar den solairuraino nola igo behar duen), planifikatu eta gelara eramanez. Beraz, ariketen ordena zein izan behar duen horretatik harago joan behar da. Didaktika-ikerketak desberdinek jadanik frogatu dutenez, sortzen diren material berriak bere irakas-estilora moldatzen ditu irakasleak. Sarritan ikusi den arren hau interesgarria dela, badauka bere arlo negatiboa: sortzaileak materiala helburu pedagogiko eta metodologiko batzuekin sortu du, eta horiek gehienetan albo batera uzten dira; irakasleak jardueren preso bihurtzen gara.
- Konpetentzia zientifikoak garatzeko ezinbestekoa da laborategiko praktiketatik ikerketa zientifikotara pasatzea. Horrek ez du esan nahi lehengoak baztertu behar di-

renik, baina bai jarduera hauetan sakondu beharra dagoela. Zientzia egiten ikasten bada zientzia, ikasleek hori nola bideratzen den ikasi beharko dute.

- Gure ikasleak zientzian konpetenteak izango dira, baldin eta testuinguru berri batean jakintza zientifikoak erabiltzen badakite. Horretarako testuinguruak dituen ezaugarriak, egitura komunak, eta abar landu beharko dira, antzekotasun horiek transferitu beharreko testuinguruetan bilatzen jakiteko.
- Bukatzeko, prozesu konplexu honek ebaluazioa amaierako jarduera izatetik prozesu osoan egotera pasa behar du. Ezinezkoa da momentu desberdinetan agertutako gabeziak eta ahuleziak identifikatzea eta hartu beharreko erabakiak eta neurriak saiotean zehar hartzea. Imajina dezagun ospitalean gaudela eta sendagileek egunero gure egoera ebaluatu barik, azken egunerarte uzten duela; nolakoa izango litzateke kasu horretan gure osasunaren kalitatea? Nik gure profesioa sendagileenarekin konparatzen dut sarri: pertsonetik harremanagatik, arduragatik, konplexutasunagatik, derrigorrez berriztatu beharrekoa delako, erronka berriei erantzun behar dielako...

Nik proposatzen dudana metodologiak Jorba eta Sanmartí-k 1994an zientzia irakasteko eta ikasteko plazaratutakoa du oinarritzat. Ziklo honek, ardatz kartesiarretan kokatuko bagenu, alde batetik egoera zehatzetik abstraktura eta bestetik sinpletik konplexura joan beharko luke. Beraz, ikaskuntza testuinguruetan kokatzen da. Ziklo honek lau etapa edo fase ditu: (a) esplorazioa; (b) edukiak sartzeko eta lantzen; (c) abstrakzioa edo sintesia; (d) aplikazioa (transferentzia momentua). Esplorazioan benetako egoera zehatz eta sinpletatik abiatzen gara eta ikasleek irakatsi nahi diren edukiak ezagutuko dituzte; bestalde, irakasleak ikasleek dituzten aurreiritziak ezagutzeko aukera paregabea izango du. Ezagutza berrien fasean, irakasleak baliabide

eta metodologia aktiboak erabiliz, eduki berriak landuko ditu, beti ere haien arteko erlazioa bultzatuz. Abstrakzioan, jadanik landutako edukien inguruko sintesia egiteko momentua izango da; ikasleek irakaslearen laguntzaz horretan ikasi behar dute, eta horretarako jarduera zehatzak beharko dituzte (kontzeptu mapak, orientazio mapak...). Aplikazioan, ikasleek bereganatu dituzten ereduak, prozedurak eta jarrerak testuinguru berrietara eraman beharko dituzte. Amaitzeko, ikasitakoari buruzko hausnarketa egin beharko da, hasierako ezagutzak bukaeran ditugunekin alderatu eta ikasitakoa berrikusteko (metakognizioa). Aipatu den bezalaxe, zikloan zehar helburuak lortu diren egiazatzeko, ebaluazioa txertatu beharko da.

Testuinguruaren garrantzia

Irakasleok ulertu behar dugu ikasleek edukiak edozein testuinguru berritan aplikatzeko gai izan behar dutela, eta horretarako, lehenengo eta behin modelo zientifikoak eraikitzea lortu behar dutela. Zientziaren didaktikan *modelo kontzeptu*-tik harago doana da. Modeloa errepresentazio abstraktua da; momentuan, ingurunea interpretatzeko eta etorkizuneko aurreikuspena egiteko baliogarria izango dena. Hala ere, hau ez da ahuntzaren gauerdiko eztabaida eta badaude tartekoak diren posibilitate batzuk, horregatik testuinguruaren garrantzia.

Lehen esan dudana bezalaxe, testuinguruak hurbila, motibagarria eta esanguratsua izan behar du. Bestalde, zientziak gehienetan galdera bati erantzun nahi dio, arazo bati sarritan, zergatik ez planteatu testuinguru horretatik galdera interesgarri eta esanguratsu bat? Adibide gisa webgune hau kontsulta liteke: <http://www.cienciasencontext.com/ciencias-en-context/>

Ikerketarako metodologiak beraz, kokapena eskaini behar du, esanguratsua izan behar du, eta ikasleek partaidetza aktiboa eskatu behar du. Talde-lanaren bitartez garatu daiteke, era kooperatiboan bideratuta. Metodologia honetan ikasleek zientzialariak izango balira moduan jardun behar dute, hau da, arazo bati irtenbide bat

bilatu behar diote metodologia zientifikoak erabiliz (*engaging science*). Erreferentzia gisa orri hau aipatuko nuke: <https://jordidomenechportfolio.wordpress.com/2015/11/18/controversias-cientificas-e-indagacion-para-la-ensenanza-de-las-ciencias/>. Adibidez, imajina dezagun ikasleak minbiziaren kontrako lanean ari den ikerketa taldeko partaide direla, eta minbiziaren kontrako botikak hartzen ari diren hainbat pertsonaren laginak dituztela. Ikasleek minbiziaren kontra lagungarriak izan daitezkeen hiru drogaren (Heferodoxine, Cicloflavin A eta L Zanton) eragina aztertu behar dute. Hainbat urrats egin ostean, tumorea duten ehun desberdinetan zein ondorio izan duten aztertuko dute: <https://sites.google.com/a/xtec.cat/drugresearch/home>.

Nola ebaluatu autoerregulazioa sustatuz?

Perrenoun-ek 1993an honako hau esan zuen: “Ebaluazioa da irakas-kuntza-metodologia baten eta ikasleek lortutako emaitzen arrakastaren oinarria, ezagutza berriak jakinarazteko modua baino gehiago. Ebaluazioa azalpen honen arabera ulertzen dugu: akatsak identifikatzeko, akatsen zergatiak ulertzeko eta akatsok nola gainditu erabakitze bidea ematen duen jardura gisa”. Ildo berean, Neus Sanmartí-k liburu irakurterraz bat publikatu zuen, zorionez 2010an Euskal Herriko Unibertsitateak euskarara itzuli zuena: *10 gako ikasteko ebaluatzen*. Bertan, oinarri teorikoak aipatzeaz gainera, jardura simple eta interesgarriak azaltzen dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako aproposak. Bertan ikasleak burututako ebaluazioa nola bideratu daitezkeen proposatzen da hainbat tresna erabiliz: sare sistemikoak, egindako lanaren berrikusketa, orientazio-oinarriak, problemak ebazteko azterketetan elkar ebaluatze jarduerak... Horrekin batera errubriken papera aipatzea ere gustatuko litzaidake eta azkenik Swartz et al.-ek, 2015an publikatutako liburua: *El parentizaje basado en el pensamiento, Cómo desarrollar en los alumnos las competencias del siglo XXI*, beste batzuren artean.

EKARPENAK 3

ARTEA LEHEN HEZKUNTZAN

IRATXE LARREA

Artista plastikoa eta EHUko irakaslea

"Garrantzitsuena umeak artelanarekin erlazio pertsonal bat garatzea da"

'Artearekiko hurbilpena eta erabilera Lehen Hezkuntzan' izeneko ikastaroa emango du Iratxe Larrea artista plastikoa eta EHUko irakasleen Eskolako irakaslea Hik Hasiren Udako Topaketetan. Arte lengoia norbere ezagutza, konfiantza eta autoestimua garatzeko tresna ezin egokiagoa izan daitekeela dio: "Bakoitzak bere burua edota interesak plastikoki adierazi ahal izatea guztiz osasuntsua da autoestimua, nortasuna eta autoezagutza garatzeko. Alegia, geure burua egiten ari garen artelan horretan islatua ikusten dugu, horrekin identifikatzen gara eta horrek plazera eragiten digu".

Artearen lengoian trebatzeak zer ematen die irakasleei?

Umekin artearen bitartez edozein irakasgai landu dezakete, hala nola, matematika, natura, gizartea, etab. Tresna ezin hobea da modu entretenigarri eta personal batean, umeei interesatzen zaizkien gaiak lantzeko eta aldi berean beraien interesa pizteko. Horretaz gain, bere burua adierazteko eta ezagutzeko lengoia aparta da.

Hurrekin nola landu daiteke artea?

Modu askotan. Egiterako momentuan garrantzitsuena esperimentazioa da, bakoitzak materialen eta hauen konbinazioetan hausnarketak egiteko eta horren ondorioz hurbilpen ludiko bat sustatzeko. Honetan ez dago mugarik, edozein material erabil daiteke, adina kontuan hartuta, noski. Sortutako eredu ezberdinak aztertu ditzakegu, atera diren koloreak, formak, ehundurak, konposizioak, irudiak, etab. ikusiz. Gauza edo interes bera era ezberdinetan adierazi dezakegula konprobatuko dute ikasleek segun eta bakoitzaren izaera eta egiteko modua. Horrek erakusten digu egiteko modu bakarrik ez

dagoela, alegia, *ondo*-rik ez dagoela. Ondoren, teknika erakutsi daiteke lengoia honetan sakontzeko eta trebeagoak izateko.

Eta artearen lanketak zer-nolako ekarpena egiten dio haurren sormenari, irudimenari eta adierazpenari?

Arte lengoia gure sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko bide bat da. Bide horretan, lengoia horren elementuak nola erabili erabaki behar dugu. Erabakitze-prozesu hau kontzienteki edo intuizioz egiten da, baina lan hau behin eta berriro egiten bada, nahi duguna adierazteko irtenbideak aurkitzera behartzen gaitu. Hala, bai sormena bai irudimena garatzen dira, beraz, haur hori bere bizitzako edozein eremutan momentu batean irtenbideak bilatzeko gai izango da, praktika hau izan badu. Irtenbideak bilatzeko erlazio-arazoei aplikatzeko edo zerbait apurten bazaio hori nola konpondu asmatzeko balioko dio. Nahiz eta sormena eta irudimena arte lengoaiari lotuta garatu, malgutasun hori haurrak barneratzen du eta gero bere bizitzan



"Arte lengoaia gure sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko bide bat da. Bide horretan, lengoaia horren elementuak nola erabili erabaki behar dugu. Erabakitze-prozesu hau kontzienteki edo intuizioz egiten da, baina behin eta berriro egiten bada, nahi duguna adierazteko irtenbideak aurkitzen ditugu. Hala, bai sormena bai irudimena garatzen dira".

konturatu gabe aplikatuko du.

Beste aldetik, bakoitzak bere burua edo interesak plastikoki adierazi ahal izatea guztiz osansuntsua da autoestimua, nortasuna eta autoezagupena garatzeko. Alegia, geure burua egiten ari garen artelan horretan islatuta ikusten dugu, horrekin identifikatzen gara eta horrek plazera eragiten digu.

Artearen lanketa horretarako zer tresna izan ditzakete irakasleek?

Esan bezala, artea lantzeko edozer erabili daiteke. Oinarrizko materialak eduki ditzakegu ikasgelan, hau da, margoak, pintzelak, buztina, papeira... Haurrentzat oso erakargarria izaten da elementu errealekin edota eguneroko bizitzarekin erlazioa duten materialekin aritzea: pintzak, apurtuta dauden mugikorak, hostoak, area, ura, jogurt ontzi bereziak...

Arteak norbere ezagutza garatzeko eta komunikazio tresna bezala erabiltzeko ere balio duela diozu. Zehaztu dezakezu?

Haurrak nahiz helduak plastikoki lan bat egin nahi duenean horren inguruan honakoa pentsatu behar du: zer adierazi nahi dugun, zein den gure iritzia gai horren inguruan (gai konkretu bat landu nahi izatekotan), nola adierazi, zein kolore, forma, ehundura eta irudi erabili nahi ditugun horretarako, tamaina handia edo txikia erabilita eroso sentitzen garen, etab. Hau eten-

gabeko ikerketa pertsonala da.

Beste aldetik, segun eta nola erabili ditugun elementuak, geure nortasunaz informazio asko ari gatzaizkio ematen bai besteari bai geure buruari; nolakoak garen, zer pentsatzen dugun, zer den guretzat garrantzitsuena... hori guztia azaleratzen dugu. Geure bizipenak, geure sentsibilitatea kanpora ateratzen ari gara. Pertsona askorentzat lengoaia artistikoa hizkuntz lengoaia baino askoz balioagarriagoa da nahi dutena komunikatzeko. Hori gerta daiteke adin horretan analisi bat egiteko gai ez garelako edota gure izaera lengoaia artistiko baten bidez hobeto adierazten delako, pentsatzeko gure bide naturala jorratuz.

Museoetako artelanak nola ikusi eta landu daitezke ikasleekin?

Museoetan ikusten ditugun artelanak eta museo bera, esperientzia bat izan behar da guretzat. Ikusten ari garena gurekin erlazionatu eta bizi behar dugu. Berdin dio koadro, eskultura edo instalazio bat izan. Koadro bat eredu moduan hartzen badugu, adibidez, abstraktua edo figuratiboa izan edo ez, ikusten dugunaren eta sentiarazten digunaren inguruan mintza gaitzake eta gero klasean horren inguruan lan bat proposatu. Garrantzitsuena umearen interesa piztea da, berarekin, bere bizitzarekin edota bere gustuekin lotuz ematen den elkarriketan. Gauza ez da artelan horren

datu guztiak jakitea baizik eta erlazio pertsonala sortzea ikusten ari garena-rekin. Artelan horretaz informazioa baldin badaukagu, informazio hori bizipena sustatzeko erabili dezakegu, momentu jakin batean aproposa iruditzen bazaigu. Artelan horren berezitasunak edo teknika azaldu daiteke umeen interesa hortik badoa eta balioagarria izango bazaie nahi duten lana egiteko. Horrela, lengoaia plastikoa landuko dugu, baina beti bakoitzaren interesari lotuta agertuko da.

Zein baliabide dituzte irakasleek horretarako?

Artelanei buruzko informazio asko Interneten bidez edo museoetan bertan eskuratu dezakegu. Baina ikasleek alde zurretik artelana ikusi eta aztertu beharko lukete; zergatik gustatzen zaien ala ez euren buruari galdetuz, zerk deitzen dien arreta, zergatik, zer aldatuko luketeen gustukoagoa izateko, zer sentitzen duten horren aurrean, zer gogorarazten dien, zerekin lotzen duten beren eguneroko bizitzan, zer-nolako musika jarriko lioketen artelan horri, zein hitz aukeratuko luketeen deskribatzeko, guztia ala parte bat bakarrik gustatzen zaien, etab. Hau da, honelako azterketa pertsonal bat eginez ez dute arazorik izango artelanaren inguruan elkarriketa sustatzeko, dibertigarria eta entretenigarria izango da, gainera.

EKARPENAK 4

LAGUNTZA INKLUSIBOA

JAVIER MONZON

Didaktika eta eskola antolakuntzako irakaslea EHU

"Metodologia kolokan jartzeaz gain, pentsatu behar genuke ematen duguna bizi dugun gizartean eta daukagun ikasle taldearentzat egokia den ere"

Didaktika eta Eskola Antolakuntzako irakaslea da Javier Monzon, EHUren Donostiako Irakasle Eskolan, eta, bereziki, inklusioarekin eta laguntza-zerbitzuekin loturiko ikasgaiak ematen ditu. Horrekin lotuta, ikastetxe eta Berritzeguneetan ere aritzen da, profesionalei prestakuntza ematen. Uste du behar bereziak dituztenen egoera aztertzea guztientzako dela onuragarri: "Curriculumaren ertzetan dauden ikasleen premiak lantzea oso baliagarria da curriculum orokorra aberasteko, hobetzeko".

"Eskola-komunitatean dagoen aniztasunari erantzun behar diogu", diozu zure aurkezpenaren sarreran, Udako Topaketan liburuxkan. Zein da eskoletako aniztasunaren argazkia? Askotan, etorkinez bakarrik ari gara dirudi, aniztasunaz ari garenean, edo fenomeno berria dela...

Aldatu egiten da aniztasunaren argazkia toki batetik bestera, baina, azken finean, premiak eta erantzunak ez dira oso desberdinak. Adibidez, azken boladan maiztasun gutxiko gaixotasunak dituzten haurrekin egin dugun ikerketa baten harira, konturatu naiz azkenean haur horiek dituzten premiak, edo, hobeto esanda, haur horien eskolatzea dela-eta agertzen diren premiak, berdintsuak direla, beste kolektibo edo beste pertsona batzuenekin alderatuta, nahiz eta orain aniztasunaren ertz berri bat dela dirudien. Adibidez, pertsona horrek daukan mediku-agendaren antzekoa izan dezake garun-paralisia duen batek (izan ere, mediku kontsultak goi-

zez izaten dira, eta, orduan, ikasleak egokitu behar du bere eskola-prozesua). Beraz, tutore batek ikaslearen egoera ulertzen badu, egoera horrekin eta ikasle horren malgutasun beharrekin enpatizatzen badu eta ikasle bakoitzaren ongizatea ikasgelan guztion erantzukizuna dela ulertzen badu, beste modu batera egingo dio harrera ikasle horri. Eta berdin ikasle etorkin batekin, edo... Kontua da bestearen premiak ulertzeko sentsibilitatea izatea.

Berdin gerta daiteke proposamen didaktikoak prestatzerakoan ere. Urtero errepikatzen duen curriculumetik abiatuko da irakaslea, edo iragazki bat jarri behar du, ikasle jakin horiek dauzkaten premiak ikusteko eta curriculuma ikasle guztiak kontuan hartuz nola prestatu aztertzeko? Harrera-haurrak, gaixotasun arraroak dituztenak, LGTB ikasleak... fenomeno berriak dira eskolaren agendan sartu diren heinean, baina, nire ustez, hor dauden premiak oso berdintsuak dira,



batez ere gizaki guztiak berdintsuak garelako oinarritzko premietan.

Azken finean, egoera horiek kolokan jartzen digute gure curriculuma edo gure lan egiteko modua, estandar batetik abiatzen garelako, beti goitik modu orokorrean pentsatutako zerbaitetatik, eta ez nire ikasle taldean eta horren ezaugarri propioetan pentsatuta. Are gutxiago eskola-komunitatean pentsatuta eta ea curriculum horrek gizarteari erantzuten dion aztertuz. Gure curriculum orokor hori gure taldera egokitzen den hausnartzera garamatza ikasgelan nolabait behar bereziak dituen ikasle bat edukitzeak.

Erantzuteko beharraz mintzo zara. Nola balioesten duzu gaur egun aniztasunari ematen zaion erantzuna?

Nahiko baikorra naiz, eta, oro har, ondo balioesten dut. Dena dela, hobetzeko aukera badago, eta handia gainera. Adibidez, curriculumari buelta bat eman behar zaio eskolaren ikuspegitik. Berrikuntzan, esaterako, indarrak jartzen ari gara metodologia-arloan, eta metodolo-


gia aktibo asko erabiltzen ari dira, batez ere Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Baikorra naiz Haur Hezkuntzan egiten den lanarekin, baina Lehen Hezkuntzan eta DBHn... Nire zalantza da ez ote ditugun metodologia berriak erabiltzen betikoa kontatzeko: betiko helburuak, betiko edukiak... Azken finean, ikasleak dituen premiei eta gizarteak dituen egoerei erantzuna eman behar die eskolak, eta asko hobetu behar du. Hau da, eskolak nola erantzuten dio ikaslearen edo auzoaren bizitzari? Adibidez, auzoan desindustrializazio-prozesua gertatzen ari bada, eskolak jartzen al du gaia mahai gainean, horrek gure bizitzetan zer eragin izango duen aztertzeke? Edo industrializazioa maila teorikoan irakasten jarraituko dugu, eta ez nire bizitzan eragina duen zerbait balitz bezala? Eskolak gertuago egon behar du gure errealitateak, bizitzatik. Gauza asko ari dira aldatzen gure ingurunean, eta egia da eskolak ez duela erantzukizun osoa horri erantzuteko, baina ondo pentsatu beharko genuke zer eduki ematen ditugun, zer helburu ditugun

gure eskolan; ea horiek aldatu diren, edo soilik gure metodologia aldatu den betikoa egiteko. Eskola inklusiboaren ikuspegitik, erronka potoloa dugu horretan. Izan ere, eskola inklusiboak lotura zuzena du komunitatearekin.

Eta irakasleen aldetik?

Aniztasunari ematen zaion erantzuna hobetzeko bidean, beste erronka bat da irakasleen eta laguntzaile profesionalen arteko kolaborazio-harremanari dagokiona. Izan ere, laguntza-irakasleak nori lagundu behar dio, behar bereziak dituen ikasleari, edo irakasleari, bere lana hobetu dezan? Irakaslearen programazioa eta haren egoera aztertzen eta hobetzen lagundu behar du, edo behar berezia duen ikasleari lagundu behar dio nagusiki ikasgelatik kanpo, noizbehinka ikasgelara etorri? Prozesu bat garatu behar da, eta konturatu behar dugu laguntza profesionalaren egitekoa irakaslearen lankide izatea dela, haren lana hobetzeko helburuarekin. Zeren eta, tutore gisa, ikasle guztiak dira irakaslearen ardura,

"Behar bereziak dituztenen kopurua handitzen ari da, askotariko kolektiboak sartzen direlako kontzeptu horren barnean; eta badirudi gero eta egokitzapen gehiago egin behar dizkiogula programazioari, eta ez dagoela ordurik horretarako. Baina programazio orokorra ikuspegi global batetik diseinatzeak izan behar luke abiapuntua, ikasle guztiengan pentsatuz"



baita behar bereziak dituztenak ere. Beraz, laguntza nori edo zeri ematen zaio, ikasleari, tutoreari, curriculumari, eskolari...? Eskola bakoitzak bere laguntza inklusiborako plana diseinatzerakoan aztertu beharreko alderdiak dira. Adibidez, asko hobetu dira ezohiko neurriak, neurri espezifikokoak, baina neurri orokorrak, ez. Hau da, prebentzio-neurriak, ikasle guztiei zuzenduta daudenak, ez dira diseinatzen ikuspegi inklusibo batetik, nahiz eta bizikidetzaren planak eta halakoak izan. Programazio orokorra diseinatzerakoan, adibidez, ez da pentsatzen horrek ere ahalbidetzen duela inklusioa. Normalean, programazio orokorra diseinatzetik abiatzen gara, eta, horren ondoren, programazio hori egokitu behar da behar bereziak dituztenentzat. Behar bereziak dituztenen kopurua handitzen ari da, ordea, askotariko kolektiboak sartzen direlako kontzeptu horren barnean; eta badirudi gero eta egokitzapen gehiago egin behar dizkiogula programazioari, eta ez dagoela ordurik horretarako. Baina programazio orokorra ikuspegi global batetik diseinatzeak izan behar luke abiapuntua, ikasle guztiengan pentsatuz. Dena dela, uste dut bidea egiten ari garela. Oro har, irakasleek ahalegina egiten dute prestakuntzan eta beraien metodologia aldatzen, eta, beraz, hobekuntzaren bidean gaude.

Laguntza inklusiboa izan daiteke erantzun horietako bat. Zertan datza, eta zertan laguntzen du?

Esan ditudan gako batzuetan oinarrituko nuke definizio hori. Gakoetako bat komunitatea da. Baliabide bat da, baina baita helburu bat ere. Ikuspegi komunitarioa izan behar dugu, zentzu askotan, laguntza jasotzeko, baina baita laguntza emateko ere. Bigarren gakoa curriculum-a da, eta, esan bezala, metodologia kolokan jartzeaz gain, pentsatu behar genuke ematen duguna bizi dugun gizartean eta daukagun ikasle taldearentzat egokia den ere. Azkenik, hirugarren gakoa irakasleen arteko elkarlana litzateke. Laguntza profesionala ematen duten espezialisten eta tutoreen edo arloetako profesionalen artekoa, DBHn. Lankidetzan aritu behar dute, zailtasunak dituzten ikasleak ere aintzat hartuta eguneroko elkarlana nola hobetu daitekeen pentsatuz, guzti-entzat proposamen inklusiboa sortuz.

Behar bereziak dituzten haurrak zentro edo ikasgela berezietan hartzen dituzte Finlandian, Katalunian, hein batean... Hemen, aldiz, gela arruntetan egiten dugu inklusioaren alde. Haien beharrak aseta daude horrekin? Zer laguntza berezi behar dute ikasgela arrunt horietan?

Nik uste dut gela arrunt batek haien behar guztiak bete behar dituela.

Produktibitatearen ikuspegitik, ona izango da agian banatzea; emaitzei begira, alegia. Baina zer helburu du eskolak? Ez al da elkarbizitzarako herritarren sortzea? EAEn integrazioaren lehen urratsak egin zirenean, aukera bat egin zen: goazen zentro bereziak desegitera, eta integrazioaren aldeko apustua egitera. Une honetan Arartekoak aurkezturiko txostenetan ikus daitekeenez, urritasunak dituzten ikasleen % 98 integratua dago eskola arruntetan, gela egonkorretan. Nik uste dut hori onura bat dela denontzat. Hasteko, horretarako eskubidea dutelako behar bereziak dituztenek: edozein pertsonak, bere egoera dena delakoa izanda ere, eskubidea du zerbitzu guztiak jasotzeko. Gainera, zergatik joan behar du beste zentro batera, maila ematen ez duelako? Baina maila hori existitzen da, edo guk ezarri dugun zerbait da? Ikasturteak aurrera doazen heinean lagunak edo ikaskideak bidean uzten dituztela ikusten dute gure ikasleek, batik bat DBHtik aurrera, ustez maila ematen ez dutelako. Nire iritziz, oso ikasketa txarra da hori biharko eguneko herritar eta profesionalentzat: sistemaren barnean, batzuk bidean gelditzen dira, ranking edo emaitza baten arabera. Nik ez dut horretan sinesten.

Arreta topaketetan jarririk, zer landu

nahi zenuke topaketa horietan? Zer mezu helarazi nahi zenieke irakasleei?

Haien lanen azterketa egiten saiatuko naiz. Gako batzuk proposatuko ditut, eta, horietatik abiatuta, zer egiten dugun eta nola hobetu dezakegun aztertuko dugu. Bakoitzaren lana mahai gainean jartzea eskatzen du horrek, errespetutik; gertaera hipotetikoetatik abiatuta ere egingo dugu lan. Bai irakasleekin, bai laguntza-zerbitzuetan dabilzanekin, lanketa bera izango da; ariketa batzuetan, elkarlanean aritu beharko dute, gainera. Ikastaroan, curriculum-laguntza aztertuko dugu, eta, horren parte den heinean, baita tutoreen eta laguntza ematen duten profesionalen arteko lankidetzaren ere. Beraz, jarduerak aztertuz praktika berriak eraikitzea izango da helburua.

Praktiken analisia egingo duzue. Atera duzu zuk ondoriorik horretatik?

Bai, curriculumak ukitu behar dugula. Metodologia aldatu eta hobetu

dugun bezala, bestelakoak ere aztertu behar dira: zer den irakaskuntza, zer harreman dugun komunitatearekin... Horrez gain, profesionalen arteko elkarlana hobetzea da erronka. Kolaborazio hori maila askotan landu behar da: eskolak komunitateari begira duen proiektuan, baina baita irakasleen arteko kooperazioan ere, adibidez. Laguntzaile profesionalen estatusa aldatu egiten da ikastetxe batetik bestera, eta aztertu beharra dugu ea laguntzaile profesionalari estatusa ematen zaion irakaslearen lana diseinatzen laguntzeko, ea irakasleek konfiantza eta autoritatea ematen dioten, eta ea gai diren haren aurrean profesionalki biluzteko.... Bestalde, laguntza horrek ez du inbaditzailea izan behar, eta ez du epaiketa batetik abiatu behar. Bien aldetik, laguntzaileen eta irakasleen aldetik, aldaketa bat egin behar da.

Zein da arreta goiztiarraren ekarpena behar bereziak dituztenen

inklusionarako?

Bai arreta goiztiarrak eta bai Haur Hezkuntzan egiten den lanak ekarpen handia egin dezakete, gero Lehen Hezkuntzan eta DBHn finkatzeko. Haur Hezkuntzan, asko errespetatzen dira haur bakoitzaren erritmoak, garapena... Nik uste dut asko ikasi behar dugula Haur Hezkuntzatik. Eta garrantzitsua da arreta goiztiarraren lana ere; garapenean izan daitezkeen hainbat gabezia zenbat eta lehenago detektatu, orduan eta aukera gehiago izango da lan egiteko eta hobetzeko. Orain, interesgarria iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak arreta goiztiarraren inguruan Haur Hezkuntzarako garatu duen protokoloa. Urratsak egiten hasi gara. Gainera, arreta goiztiarrean, badaude gako batzuk oso interesgarriak direnak; adibidez, familiaren esku-hartzea; HHn barneratzen dira, baina ondo pentsatu beharko dugu LHn eta DBHn nola txertatu hori, ume edo gaztearen ingurunea lantzea, alegia.

didakma  jolastu ikasi hezi

euskarazko jostailu didaktikoen web-gunea



www.didakma.com

info@didakma.com



EKARPENAK 5

GURE IMAGINARIOA KANTAGINTZAREN BITARTEZ

"Euskal kantagintzak gure eskoletan leku erreferentziala izan behar luke"

Kantagintzaren bitartez eskoletan euskal imaginarioa, eta, bide batez, Euskal Herriaren bilakaera historikoa, soziologikoa, kulturala... nola landu daitekeen aztertuko dute Gotzon Barandiaran eta Rueda musikari eta kulturagileek Udako Topaketetan. Haien esanetan, idazle eta musikarien artean sortutako kantekek eragin handia izan dute euskaldunon imaginarioan. Baina, salatzen dutenez, XXI. mendean sartuz geroztik, euskal kantagintzak, euskal kulturak bezalaxe, zentralitatea galdu du: "Egoera hori iraultzea dagokigu orain".

Euskal kantagintza XIX-XX. mendera arte ahoz aho transmititu zen nagusiki. Horren erakusle izan liteke koplakariaren figura. Joxe Mari Iparragirreraren adibidea jartzen du Barandiaranek: "Herriz herri ibiltzen zen, jendea zegoen lekuetara joaten zen eta bateko eta besteko kronikak egiten zituen". Hala, esate baterako karlistaden inguruko informazioa jakin nahi bada historia liburuetan agertzen denetik aparte, kantagintzara jo daiteke: "Kanten bidez jaso diren testuak aztertuz gero, ohartuko gara Euskal Herriaren historia osoa ezagutu dezakegula", argitzen du

Barandiaranek.

Beraz, XIX-XX. mendera arte kronikak egiteko eta ahozko transmisiorako erabiltzen zen kantagintza. XX. mendean, ostera, Aitzolek abiarazi zuen bizkunde sasoiko testuak izan ziren mugarri, kulturgilearen arabera, Lauaxetaren, Lizardiren, edota Orixeren testuek sekulako eragina izan baitute euskal idazle nahiz musikariengan: "Horren isla izan daitezke, esaterako, Antton Valverderen monografikoak, edota Pettik nahiz Eñaut Elorrietak kantatzen duten *Mendigoxaliarena*: 'Dana emon bihar jako maite dan askatasunari'. Pentsa, zer nolako eragina izan duen lelo horrek".

60ko hamarraldi amaieratik XXI. mendera arte, berriz, identitateari, hizkuntzari, lurraldetasunari, borrokari, lanari, turismoari... buruzko iruditeria eta diskurtso guztia kantagintzatik jaso dugu, kulturgilearen hitzei jarraiki. Aitzindariak izan ziren Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako letragileak. Manex Pagola eta Daniel Landart lehenik, eta gerora, Itxaro Borda edota Mixel Labéguerie.

Hori hala, Barandiaranek azal dutako eran, XXI. mendera arte izugarritzako eragina izan du idazleen eta musikarien artean sortutako kantagintza horrek euskal jendartearen. Bereziki, ezaugarri nagusi bat izan duelako oinarri: jarrera argia eskatzen zioten irakurleari edo entzuleari, dei zuzena egiten zuten, "Hauri da gertatzen. Horren aurrean zer

egingo duzu zuk?"

Baina XXI. mendetik aurrera, izaera horrek garapen bat izan du eta aldatu egin da. Hala, gutxi gorabehera 2000. urteaz geroztik euskal kantagintzaren funtzioa beste bat da: "Gaur egun ere badaude talde batzuk oso zuzen kantatzen dutenak, baina oro har, kantatzeko eta idazteko beste modu bat dago". Kulturgilearen hitzetan, aldaketa nagusia da idazleak ez diola irakurleari edo entzuleari zuzenean ezer eskatzen. "Idazleak idatz dezake egoera sozial bati buruz, sentipenei buruz, identitatearen gainean edota harremanen inguruan, baina oso modu irekian egiten du, irakurketa askotarako bidea emanaz. Hartzaileari ahalegin bat eskatzen dio bere erara interpreta dezan". Eta adibide zehatz bat jartzen du: "Ruper Ordorikak duela 10 urte baino gehiago egin zuen *Zaindu maite duzun hori*, eta oraindik ere kantatzen duen bakoitzean hitzen inguruko azalpenak ematen jarraitzen du".

Kantagintza mota aldatu den bezalaxe aldatu da haren funtzioa ere. "Jada ez dauka lehen zeukan prestigioa, ez dauka lehen zeukan balioa", dio Barandiaranek. Haren esanetan, gaur egun musikak pertsegitu egiten gaitu. Musikak hautatzen du hartzailea eta ez alderantziz: "Tabernara zator eta musika hau daukazu, okindegian beste bat... ezin duzu alde egin. Lehen bestelakoak ziren kontuak. 60-70-80ko hamarraldietako sasoian musika entzun nahi



bazenuen musika zegoen toki hartara joan behar zenuen. Eta, gainera, ekintza sozial batean hartzen zenuen parte, komunitate bateko kide egiten zinen. Gaur egun, kantagintza norbanakotu, individualizatu egin dela esango nuke”.

Zentzu horretan, Barandiaranek ohartarazten du argi izan behar genukeela gaur egun inolako ahaleginik egin gabe kultura espainolaren, frantsesaren eta ingelesaren kontsumitzaile garela. “Geure aldetik ezer egin gabe ere, kultura horien kontsumitzaile pasibo gara”. Euskarazko musika entzuteko, aldiz, bila joan behar izaten dela gaineratzen du, eta horrek ahalegin bat eskatzen duela. “Zer esan nahi du horrek? Musikaren arloan euskarazkoa ez dena oso erraz iristen zaigula. Hori gertatzen zaigu Euskal Herrian euskarazko kantagintza bigarren plano batean dagoelako. Ez dagoelako erdigunean. Hori irauli egin behar dugu. Euskal kantagintzak gure artean leku erreferentziala izan behar luke, lehenetsuneko tokia”.

Euskal kantagintza erdigunean?

Zergatik izan behar luke, baina, lehenetsuneko tokia euskal kantagintzak? Barandiaranek hainbat argudio ematen ditu. Hasteko eta behin, oso kontuan izan behar da “gure” artean bizi den jendeak sortutakoak direla, eta “gure hizkuntzan”. “Gure kantariak beraien eguneroko bizimoduari buruz kantatzen dute, inguruan gertatzen denari buruz... Hori baino hurbilagoko erreferentrik ez dago. Zu bizi zaren lekua, zu bizi zaren komunitatea, zu bizi zaren jendea... ondo ulertzeko, hemendik 8.000-10.000 kilometrora bizi den

batek kontatzen dizuna baino askoz aberasgarriagoa izango da. Eta segur aski ulergarriago ere bai zure ondoan bizi den batek kontatzen dizuna”. Horrez gain, elkarbizitzarako ere baliagarri iruditzen zaio Barandiarani kantagintza erdigunean jartzea. Izan ere, bere hitzetan, elkarrekin bizi garen heinean, elkarri entzutea dagokigu, elkarren proposamenak eta elkarren sentimenduak ulertzen saiatzea, besteren tokian jartzea, eztabaidatzea eta adostasunetara heltzea.

Zer toki du eskoletan?

Gaur egun euskal kantagintzaren transmisiorik ez dago ez hezkuntza arautuan ez arautu gabean, Barandiaranen aburuz. Tokatzen den irakaslearen arabera, gerta daiteke gehiago edo gutxiago lantzea, baina eskoletako hezkuntza-proiektuetan nahiz programetan sartu gabe dago. Kulturgilearen irudiko, ordea, oso aproposa izan liteke euskal kantagintza ikastetxeetan erabiltzeko. Izan ere, ikaslearen garapenerako eta eguneroko bizimodurako garrantzitsuak izan daitezkeen gai guztiak jorrotzen ditu kantagintzak.

Gaur egun gertatzen ari dena ulertzeko eta egoera honetara nola iritsi garen ulertzeko ere balio dezake kantagintzak sortzailearen iritzi. Bere esanetan, alde handia dago Historia liburuetan erakusten zaigunaren eta idazle eta musikarien artean sortutako kantez kontatzen dutenaren artean. “Esate baterako, 36ko gerra ulertzeko, testuliburuak diotenetik aparte, hor daukagu *Agur Itxorta maite* Joseba Tapiarena”. Barandiaranek erantzen duenez, gainera, kantari batek ez du zertan

bete historiagile batek jarraitu beharrezko irizpide antologikoa, ahalik eta neutraltasun eta objektibotasun handiena gordez. Aitzitik, idazleak eta musikariak gertatu denaren interpretazio bat egin dezakete, sentipenetatik edo bizipenetatik. “Hori oso aberasgarria da. Gainontzean, datu hotz soil bilakatzen baita historian gertatutakoa”.

Gaur egun toki askotan entzuten den musika, “fondoko musika baino ez da kasu askotan, ezelango baliorik ez duena eta ezertarako balio ez duena”. Barandiaranen ustez, musika mota horrek pedagogikoki ez du inolako ekarpenik egiten. Aldiz, ikasleari esplikatu gero letra jakin bat idazle batek zein testuingurutan idatzi duen, autore horren lanaren barruan non kokatzen den, zer esan nahi izan duen letra horrekin... beste jarrera bat hartuko du ikasleak eta letra horri beste balio bat emango dio. Orduan esango du: “Hau ez da nik uneoro edozein lekutatik jasozten dudana musika hori, hau beste gauza bat da”.

Barandiaranek argi dauka kultura eta sorkuntza gizarte hobe bat lortzeko ezinbesteko elementu direla, eta beraz, eskoletan toki zentrala eduki beharko lukeela. Izan ere, kulturgileak gaineratzen duenez, gaur egun ikasleengan halako “deserrotze” bat, “indiferentzia” bat sumatzen da. “Gure ustez hori gertatzen da kulturarik gabeko pertsonak eraikitzen ari garelako. Eta kultura diodanean, jakintzaz ari naiz, sormenaz, begiruneaz, partekatzeaz, komunitateaz... Guk argi daukagu etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko euskarazko kultur sorkuntza ezinbestekoa dela”.

GALDEIDAZU

NOLA LANGUNDU DEZAKE MINDFULNESSAK HEZKUNTZAN?

Esnatu, altxatu, jantzi, duxtatu ... ala kasik aldrebes hobeto? Arrapaladan umeak itzartu, jantzi (edo alderantziz ere, presaka ibilita umeak lo daudela janzte errazagoa delako), gosaria eman, gosaria jateko borrokan egin, ateraino irten, umeen zain haserretu ... eskolara eraman tiraka, liburu, hamaiketako, kirol arropa, ingeleseko koaderno, pinturarako materiala ... dena daukatela bermatu, eta ospa lanera, bidean zerbait okertuz gero gaur ere berandu ailegatuko naiz eta..

Zoritxarrez goikoa ez da karikatura bat, baizik eta nik eta guraso askok umeak hazten egon garen bitartean bizi izan dugun errealitatea.

Gure gizartean egonezina oso hedatuta dago: **gurasoak, presaka eta korrika**, ailegatu ezinda bizitzearen sentsazioarekin gabiltza; ondorioz, **ume eta gazteen artean ere ezinegona** areagotu egin da, besteak beste, etxe barruan askotan erreferentzia gutxiago dutelako eta estimulu gehiegiren menpe bizi direlako. Hortaz, arreta falta, hiperaktibitatea, antsietatea eta bestelako arazoek gero eta presentzia handiagoa dute gure ikasgeletan, horiek dakartzaten elkarbizitza eta funtzionamendurako zailtasunekin.

Mendebaldeko gizarte gehienetan gertatu den azelerazio fenomeno horrekin batera, immigrazioaren ondoriozko **kultur aniztasunak** ikasgeletan daukan isla eta sortu-



VIRGINIA BELATEGI ERAIN HEZKUNTZA INTEGRALEKO KIDEA



tako moldaketa premiak ere badi-tugu. Euskal Herrian, halaber, horri guztiari **gure historiaren** azken hamarkadetan izandako gatazketatik eratorritako elkarbizitzarako tirabirak ere gehitu behar zaizkio toki askotan, eta guztiaren ondorioz, **gelaren kudeaketa gero eta lan konplexuagoa** bihurtu da.

Materia irakasteaz gain, irakaslearengandik beste **hainbat funtzio** betetzea espero da (heziketa emozionala, premia bereziak dituzten ikasleentzat moldaketak, gurasoekin harremana, kudeaketa lanak...), fronte guztiak ase ezinda dabiltz

Bestetik, duela berrogeita hamar urteko irakasle orojakile eta erabateko autoritadedun figura hartatik zorionez urrundu ginen arren, gaur egun askotan **irakasleen autoritatea** guraso eta umeek eurak **zalan-tzan** jarrita agertzen da. Ondorioz, **irakasleen artean ere estresa eta errete egotearen sentsazioa** nahiko hedatuta daudela ikusten dugu.

Egoera konplexu honen aurrean, mindfulnessak planteatzen duena oso bide xumea da, baina aldi berean **sis-tema osoan eraldaketa** handia ekar dezakeena: bakoitzaren **barrukotasunari** begiratzea da proposamena, besteekin eraikitzen ditugun harremanen abiapuntu bezala.

Mindfulnessa Ekialdeko tradizioetan oinarritutako praktika bat da, eta bere jatorria Budismoan koka dezakegun arren, diziplina

hau Mendebaldera ekartzean eduki erlijiosoez hustu eta praktika guztiz laikoa bihurtu da. Bertan, norbere burua lasaitu eta orain eta hemen gertatzen ari denarekin konektatzera bideratutako era askotako ariketak ditu oinarri.

Zer da meditatzea?

Mindfulnessaren **praktika nagusia jesarritako meditazioa da**. Meditazio hitza askotan entzuna dugun arren, “Zer da, baina, meditatzea? Zelan meditatzen da?” guztion burutik pasatu diren galderak dira.

Meditazioan, praktikatzailea jarleku, banku txiki edo zafu izeneko kuxin batean jesarritako da, bizkarra zuzen duela ziurtatuta, arnasbideak irekita egon daitezen, eta gorputza ondo lerrokatu ostean, meditatzaileak **arnasketari** erreparatuko dio, arnasketaren erritmo eta kalitatean eragiteko asmorik gabe, bakarrik sartu eta ateratzen den aireari arreta eskaintzen, mugimendu horretan sortzen diren sentsazio fisikoez jabetuz, zein ager daitezkeen emozio edo pentsamenduak behatuz.

Meditatzaileak bere burua estimulu bakarrean kontzentratzera diziplinatuko du, estimulu hori arnasa zein bestelako behaketa-objektu bat izan, eta horrek, batetik, une horretako esperientzian murgiltzeko aukera emango dio, **arreta** horrenbestetan aipatzen den **orain eta hemen** horretan jartzeko. Praktikan sakondu ahala, orain eta hemen hori une fisikotik harantzago joan daiteke eta norbere bizitzaren esparru zabalagora hedatu.

Halaber, meditatzen dagoenak estimulu batean zentratzeko, gainerakoak baztertu beharko ditu, horrek eskatzen duen diziplinaren entrenamenduarekin. **Borondatea sendotzea** da, arreta lantzearekin batera, meditazioak eskaintzen digun bigarren onura.

Arreta eta borondatea lantzea oso erabilgarria izan daiteke esparru akademikoan, gero eta hedatuago ditugun arreta eta ekimen faltaren arazoei aurre egiteko. Baina meditazioaren azken helburua hori balitz, arriskutsua izateko aukera ere baluke, indartutako arreta eta borondate hori hain goresgarri ez diren

xedeetarako ere erabil daitekeelako. Hain zuzen ere, mindfulnessaren baliagarritasuna eta indarra hain dago onartua, ezen zenbait multinazional eta armaden entrenamenduen oinarri bihurtu baita.

Meditazioak enfokatzeko, kontzentratzeko eta gure barru eta inguruan gertatzen dena behatzeko balio izateaz gain, hori guztia begi garbiez eta **epairik gabe ikusteko gaitasuna** eman nahi digu, gertatzen denaren aurrean gogoia lasai mantenduz, parean dugun arazoarekin identifikatu gabe.

Ekuanimitate hori ezin da, baina, axolagabekeriarekin nahastu. Kanpoan gertatzen ari dena ardura zait, baina estimulu horren aurrean zuzenean erreakzionatu beharrean, jazotzen dena aztertuko dut, ona edo txarra den berehala etiketatu gabe, eta nire barruan gertatzen ari den horrentzat espazio bat egin ostean, egokien iruditzen zaidan eran jokatu dut. Meditazioaren ezaugarri hau oso lagungarria da **inpulsiitatearen gestioan**, eta ezin dugu ahaztu eskola barruko eguneroko jardunean sortzen diren istiluak hein handi baten egonezinaren eta oldarkortasunaren ondorio direla.

Mindfulness edo Arreta Osoaren azken helburua, ordea, ez da gaitasun horiek garatzea. Horiek guztiak benetako xedea lortzeko erremin-tak dira. Ingeleseko *mindfulness* hitza **arreta oso** bezala itzuli ohi da euskarara (gaztelaniazko *atención plena*-ren ordaintzat). Nolanahi ere, komenigarria da hemen ñabardura bat egitea: arreta osoa da praktikatzaileak meditatzean erabiltzen duen gaitasun kognitiboa; baina ingeleseko hitzaren esanahiari erreparatzen badiogu, mindfulnessa gehiago da arreta horren emaitza, hau da kontzientzia. Eta **kontzientzia** hori da meditazioaren xedea, garena hobeto ezagututa **barruko askatasuna** emango diguna, eta gure barruan dagoenaz kontziente izanda, besteengan gertatzen direnak hobeto ezagutu eta onartzera eramango gaituena, enpatiaraz alegia, edo termino budistetan esanda, errukira. Ulertzeko horretatik sortuko den **begirada maitekorra** da meditazioaren xede

Materia irakasteaz gain, irakaslearengandik beste hainbat funtzio betetzea espero da (heziketa emozionala, premia bereziak dituzten ikasleentzat moldaketak, gurasoekin harremanak, kudeaketa lanak...), fronte guztiak ase ezinda dabiliz.

Egoera konplexu horren aurrean, mindfulnessak planteatzen duena oso bide xumea da, baina aldi berean sistema osoan eraldaketa handia ekar dezakeena: bakoitzaren barrukotasunari begiratzea da proposamena, besteekin eraikitzen ditugun harremanen abiapuntu bezala.

Arreta eta borondatea lantzea oso erabilgarria izan daiteke esparru akademikoan, gero eta hedatuago ditugun arreta eta ekimen arazoei aurre egiteko. Baina meditazioaren azken helburua hori balitz, arriskutsua izateko aukera ere baluke, indartutako arreta eta borondate hori hain goresgarri ez diren xedeetarako ere erabil daitekeelako.

Badakigu gauzak behin eginda behin-behineko onura ekartzen dutela, baina ez behar dugun patroialdaketa; ikastetxe askotan, ordea, horrelako gaietan trebakuntza egiten da eta gero egunerokotasunean ez zaio tarterik egiten, materia akademikoari denbora lapurtzea bezala ikusten baita, kontuan izan barik praktikak berak kontzentrazioari eta etekin intelektuari egiten dion ekarpena.

Irakasle asko deseroso sentitzen dira gidari lanetan; barregarri geratuko diren sentsazioa daukate inoiz praktikatu ez duten (eta sarritan arrotz zein mistiko bezala ikusi den) egiteko modu berri bat aplikatzean. Horregatik, garrantzitsua da lehenik eta behin irakasleekin lan egitea, eurak lehen pertsonan onurak bizi ditzaten, ondoren, duten gaitasun biderkatzailea aprobeztatuz, ikasleei transmititzeko.

nagusiaren bigarren atala.

Tradizio budistak dio **jakituria eta errukia** txoriaren hegal biak direla, eta mindfulnessak biak garatzen lagun diezaguke. Jakituria bizitzaren pertzepzio erreala izatetik datorkigu, esperientzia biltzen duten ideia eta aurreiritziei joaten uztezik, eta askotan esaten den bezala, iraunkorra den gauza bakarria aldaketa dela jabetzetik.

Maitasuna eta errukia garatzen dira pertzepzio hori gainerako izakiei zabaltzen diegunean; **denak hain desberdinak izanda, guztiok sufri-mendu eta miseria berdina bizi ditugula** ikusten dugunean. Bada Eckhart Toller irakurritako esaldi bat nire pertsonen gaineko pertzepzioa aldatu zuena eta honela dioena: epaitzen ari garen pertsona horren jatorri, bizipen zein gaitasun berberak eduki izan bagenitu, berak egiten diharduen berdina egingo genuke. Niretzat apaltasun ikaspena, benetan, guztiok funtsean berdina gairela eta gure zirkunstantziak era batera edo bestera jokatzera eramaten gaituztela konturatzea da.

Eta eskola mundura ere ekarrita, hau izan daiteke gugandik desberdina dena maitatzeko bidea: zailtasun edo nahasmendu bereziren bat daukanetik hasita, beste orientazio sexual bat, azal kolore edo, oinarriko bezain mingarri izan daitezkeenak, beste pisu, altuera edo edertasun maila daukanera. Desberdina dena iraindu eta baztertzeko hezita gaude, baina gure gizartean dagoen krispazioa jaisteko onarpena eta benetako integrazioa dira jorratu beharreko bideak.

Meditazioaren inguruko xehe-tasunekin bukatzeko, meditazio praktikak askotan *metta* izeneko eskaintzarekin amaitzen dira. Gure adierazpen moldeetarako apur bat arrotz den arren, sakoneko esanahi oso ederra dauka, nire ustez, *metta* egiteko erabiltzen den formulak:

- *Nik eta bizidun guztiok bizi dezagula benetako zoriontasuna.*

- *Ni eta bizidun guztiok libera gaitetzela sufrimendutik, nahasmendutik, beldurretik eta beren kausetatik.*

- *Ni eta bizidun guztiok gai izan gaitetzela pozez aitortzeko besteen-*

gan dagoen ontasuna eta zoriontasuna.

- *Ni eta bizidun guztiok gai izan gaitetzela ekuanimitatea gaitatzeko.*

Eta berriro euskararen esamoldeetara itzulita, *Hala Bedi* ateratzen zait, benetan aspalditik sinesten dudalako mundua eta gizartea aldatzeko bideak barrutik kanporakoa izan behar duela.

Mindfulnessa eskolan

Bide horretan dagoeneko badugu auzoan esperientzia garrantzitsu asko: izan ere, Britainia Handian hartu duen indarra hain da nabarmena, ezen Parlamentuak Mindfulness Talde bat jarri baitu praktika hau bultzatzen eta bere eraginkortasuna bizitzaren esparru guztietan ikertzen.

Taldeak argitaratutako txostenean Hezkuntzari buruzko kapitulu hasieran adierazten den bezala, “hezkontza arloan badira hiru erronka nagusi kontzientzia edo arreta osoaren ikerketaren ebidentziak eragiten dituenak. Lehena lorpen akademikoa eta emaitzen hobekuntza, bigarrena gero eta hedatuago dagoen umeen osasunaren inguruko antsietatea baretzea, eta hirugarrena, izaera eratzea eta erresilientzia garatzea bezalako kontzeptuen inguruan egiten duen ekarpena”. Azken hori litzateke gure xedea, txosten horren sarreran jasotzen den bezala mindfulness-aren inguruan egindako interbentzioek “autoebaluazioetan antzemandako estres, amorrurik, barruko marmar eta sintoma fisiologikoen mailak jaisten dituztelako, eta itxura fisikoa, empatia, koherentzia, norbere buruarekiko errukia eta bizi kalitate orokorra hobetzen dituztelako”.

Eskola barruko egunerokotasunean txertakaitza izan daitekeela eman dezakeen arren, orain arte azaldutakoak oso praktika labur eta soiletara ekar daitezke. Lanaren giltzarria, **arnasketan zentratzea** izango da, ikasle guztiekin eta sarritan, ahalik eta mekanika barneratu arte. **Erlaxazio, kontzentrazio eta meditazio ariketa laburrak** ere eguneko ordu edo ataza jakinetan erabiliko ditugu.

Honelako programa batek arrakastarako gako nagusi bi behar ditu: **konstantzia eta onuretan sinestea.**



Batetik, badakigu gauzak behin egin da behin-behineko onura ekartzen dutela, baina ez behar dugun patroialdaketa; ikastetxe askotan, ordea, horrelako gaietan trebakuntza egiten da eta gero egunerokotasunean ez zaio tarterik egiten, materia akademikoari denbora lapurtzea bezala ikusten baita, kontuan izan barik praktikak berak kontzentrazioari eta etekin intelektuari egiten dion ekarpena.

Bestetik, irakasle asko deseroso sentitzen dira gidari lanetan; barregarri geratuko diren sentsazioak daukate inoiz praktikatu ez duten (eta sarritan oso arrotz zein mistiko bezala ikusi den) egiteko modu berri bat aplikatzean. Horregatik garrantzitsua da lehenik eta behin irakasleekin lan egitea, eurak lehen pertsonan onurak bizi ditzaten, ondoren, duten gaitasun biderkatzailea aprobetxatuz, ikasleei transmititzeko.

Mindfulnessaren aplikazio espezifikokoak

Orain arte deskribatutako mindfulnessaren onurak aplikagarriak dira

bizitzaren edozein esparrutan, eta zehazki, Hik Hasiren inguruan batzen gaituen hezkuntzaren munduan.

Nolanahi ere, badira meditazioaren praktikak eskaintzen dituen zenbait trebetasun ikaste-prozesurako bereziki lagungarriak direnak, eta horien artean nagusi arretaren lanketa litzateke.

Gaur egungo ume eta gazteen artean oso hedatuta daude irakurmenaren inguruko arazoak eta Ebaluazio Diagnostikoetan agertzen diren emaitzek klase barruko errealitatean aurkitzen dugun egoera kezagarria berresten dute.

Mindfulnessa ikasleekin lantzeak hiru mailatan lagunduko digu:

- Maila kognitiboan, arreta garatzeko baliagarria izango delako, eta irakurtzeko prozesuan funtsezko baliabidea den heinean, oso erabilgarria izango zaigulako.
- Maila metakognitiboan, askotan ikasleen artean topatzen dugun “ez dakit eta ez dakit zer ez dakidan” jarrera hori

aldatzen lagunduko digulako, ikaslea aktiboago eta kontzienteko bihurtzea ere badelako meditazioaren helburua.

- Maila motibazionalan, aktibotasun hori berori ikaslea suspertzeko lagungarri izan daitekeelako, irakasleok ikasleak hartzaile hutsak izatetik edukien sortzaile izateko bidean lagun diezaiekegulako. Hortaz, Sokratesen maieutikaren berreskurapenaren aldeko SOS deia bidaltzen dut hemendik. Bestalde, meditazioak dakarren aipatutako erruki edo enpatia hori ere oso lagungarria izan daiteke besteekin eta, are gehiago, norbere buruarekin hain gogor ez aritzeko.

Onura horiek guztiak ikasgelako ume guztientzat baliagarriak badira ere, oraindik beharrezkoagoak dira zailtasun bereziak dituzten umeen kasuan, hala nola arreta falta eta hiperaktibitatea, jokabide arazoak zein ikasteko bestelako zailtasunak dituzten haur eta gazteentzat.

ATZEKO ATETIK



ATEA IREKITZEN

NAIARA GORROÑO PEDAGOGOEA ETA YOGA IRAKASLEA

Urtean zehar yoga klaseak ematen ditut eta klaseetara datozen pertsona dezente ogibidez irakasleak dira. Honek zera pentsarazten dit: zergaitik horrenbeste irakasle yoga egiten?

Hazkunde pertsonalerako edo autoezagutzara zuzendutako hainbat ikastaro egin izan ditudanean ere, irakasleak izan dira nagusi ikastaro horietan.

Irakaskuntza ogibide delikatua da; gure izate osoaz egiten dugulako. Jokoan dago nola begiratzen ditugun ikasleak, nola entzuten ditugun, ze harreman eratzen dugun gu eta bestearen artean. Hortik sortzen da gainerako guztia. Irakaslearen presentzia-egoerak, alegia, irakasleak duen egoteko eta izateko moduak bere jardunean erabateko eragina du. Eta hau ezin digu inork irakatsi, soilik norberak ikasi dezake.

Badut susmoa une honetan ezinbestekoa dela atzeko atea irekitzea bide berri baten aurrean jartzeko.

Atzeko ateak gure barne mundura ireki behar gaitu. Erabat ahaztu dugu gure barnean mugitzen den errealtatea, geu garen horren analfabeto huts bihurtu gara sarritan. Gure arreta erabat kanpo alderantz zuzendu dugu

eta ematen du gure barne gidaritza erabat galdua dabilela. Barne indarra galtzen dugunean bizitzaren kontrola erabat kanpoan jarria daukagu, eta hor sortzen dira gaur egungo gizartearen gaitz handiak, buruko gaitzak: depresioa, antsietatea, bizitzaren zentzu eza. Eraiki ditugun sinesmenak zalantzan jartzeko puntuan gaude: garrantzitsuagoa da edukitzea sentitzea baino, itxura ematea garena izatea baino, lorpena gauza materialak edukitzean dagoela sinetsi dugu eta izatea erabat ahaztua izan da. Honek zorientasun eskasa dakarrela agerikoa da.

Irakasleak badu, ogibide moduan, atzeko ate hori irekitzeko premia. Agian horrexegatik elkartzen dira horrenbeste irakasle yoga egiten edo hazkunde pertsonalerako ikastarotetan, euren ongizaterako badutelako beharra euren barne mundua ezagutzeko. Irakaskuntza uneoro gizatasunarekin lanean dabilelako, norberaren eta besteen izate osoa dagoelako jokoan ikasgela batean gaudenean.

Norbera garena ulertzen dugunean bestearen izaera uler dezakegu. Autoezagutza da ezagutza guztien oinarria, jakintza guztien iturri. Ni naizen honi itsu banago, bestea

ezingo dut ikusi; begien aurrean egongo da, baina ez dut ikusiko. Ezin diogu inori eman geugan ez daukaguna. Horrexegatik, norberak bere izatea ezagutzen duenean, bere konplexutasun osoan, bestea ulertzea eta ezagutzea errazagoa bihurtzen da. Ezagutza honek eraldaketak ekarriko ditu jarduera pedagogikora, irakaslea kokatzen den barne lekua ezberdina delako, bere begirada, eta bihotza, zabaldu egingo dira. Autoezagutza hau ez dugu ulertu behar norbera bere barnean isolatua gelditzea bezala. Autoezagutza honek bestearengana hurbiltzeko balio behar digu. Ni neu naizena ezagutu, onartu eta maitatu; bestea den hori hobeto ulertu, onartu eta maitatzeko.

Ireki daitezela beraz, atzeko ate horiek, geu garen horretara hurbilduko gaituztenak. Biderik luzeenak pauso txiki batekin hasten dira, eta lehenengo pausoa arreta berreskuratzea izango da. Arreta gabe gure bizitza itsaso zabalean noraezean dabilen itsasontzia bezalakoxea da. Arreta pizten dugunean itsasontziaren lema hartzen dugu eta gure gorputza, sentsazioak, pentsamenduak, emozioak, gure barne mundua bizitzeko bidean jartzen gara.

ikastola garbia

eta bazkaria gozoa



Taldeetarako
sukaldaritza
eta garbiketa



ausolan





REGGIO EMILIAko “LORIS MALAGUZZI Haur eta Lehen Hezkuntza eskola ezagutzen” jardunaldia

Donostian udaberrian egin zen jardunaldian jende asko kanpoan geratu zenez, eskaintza berritzea eta osatuagoa egitea erabaki du Hik Hasik, **Bilbon**.

Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskolek 50 urteko ibilbidea egin eta gero, duela 7 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. **Haur eta Lehen Hezkuntzako** ezaugarriak eta garapena ezagutzea da helburua.

Horretarako, jardunaldia antolatu dugu **URRI**Aren 15ean, larunbata, 9:00etatik 18:00etara, **BILBON**.

Aurkezpen orokorra:

- Haur Hezkuntzako filosofia Lehen Hezkuntzara nola eramaten den ezagutu.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako berezitasunak azaldu.
- Eskubide bereziak dituzten haurrekin nola jokatu.
- ...

Loris Malaguzzi eskola ezagutuko dugu, 3-11 urte bitarteko haurrekin garatutakoa da. Hau da, **Haur Hezkuntzako** bigarren zikloa (3-6) eta **Lehen Hezkuntza** osoa (6-11).



Informazioa eta izena ematea irailen: www.hikhasi.eus